



Herriko bestak

eskualdeko 14 herritan

ARANTZA

Arantza Rock 2010
abuztuaren 21ean

BAZTAN

Artearen ibilbidearen
baitan erakusketak

SARA

Kontrabandisten
lasterketa hilaren 22an

AIZKORA

Nafarroako III. mailako
finala abuztuaren 29an

Ugaritzen ari da turismo aktiboaren eskaintza

Turismo aktiboa gogoko duten
horiertzat hainbat enpresa
sortu dira azken aldian eskual-
dean. Mendi ibilaldi gidatuak,
ur-aktibitateak, zaldi ibilaldiak,
paintball, mendi bizikleta,
espeleologia, segway....
Eskaintza zabala da.

ERREPORTAJEA → 4-5

ELKARRIZKETA → 3

Ainhoa Ansa Euskal
Herriko ahotsak biltzen



ahotsak.com ekimen-
aren barne, Euskal
Herriko lekukotasunak
biltzen ari da Ainhoa
Ansa aranoarra.

BAZTANDARREN
BILTZARRA → 6

Eguzkipean besta
arrakastatsua



Milaka lagun bildu
ziren uztailaren 18ko
Baztandarren Biltza-
rean. Guzira 21 orga
aurkeztu ziren eta
Oronoz-Mugairikoa
atera zen irabazle.
Bigarren, berdinduta,
Zigakoak eta Elizondo-
ko Aise koadrillakoak
gelditu ziren, eta hiru-
garren, Elbetekoak.

ZOZKETA → 36





AROZ - BERRI

IRURITA
TF 948 581021
Fax 948 452103

ORIKAIN
TF 948 332617
Fax 948 360924

ONGI PASA BESTAKI!



ttipi-ttapa FUNDAZIOAK

zure laguntza behar du

eginzazu ttipi-ttaparen alde
proiektu zenbakia: 15.996

Esku ezazu ttipi-ttaparen proiektua
aukeratu izanaren frogagiria
Nafarroako Kutzaren zure bulegoan
eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko
abenduaren 30a baino lehen.

dagoeneko
765
LAGUNEK
egin dute
gure alde

Poltza eder hau
izanen duzu
opari.

geure bezeroek
aukeratutako
proiektua **can**

Euskal Herriko ahotsak eta lekukotasunak biltzeko helburuarekin sortu zen *ahotsak.com* ekimena. Eta egitasmo horretan dabil Ainhoa Ansa aranoarra. Gipuzkoako zenbait herritan

elkarrizketak egiteko ardura du, eta ehundik gora egitekoa da urtebetean. Baina, etxekoez ahaztu gabe, ingurukoei ere elkarrizketak egitea gustatuko litzaiokeela adierazi digu. Hiztu-

nak aurkitu eta kamara aurrean kontu saio bat grabatuz egiten dute lanaren lehen zatia. Ondotik, bulegoko lana etorriko da: kodifikatu, transkribatu, editatu... Lan mardula, beraz.

Ainhoa ANSA | *ahotsak.com*-en lanean ari den aranoarra

«Aiton-amonek eta gurasoek duten jakinduria urteekin ikasten da»

G. PIKABEA | ARANO

Nola ailegatu zinen proiektu honetan parte hartzera?

Iaz, *ahotsak.com*-en lanean garrantzia ikusita, langile berri batzuk kontratatzeko aukera sortu zen. Horretan lan egin zuten saria izan zen dirulaguntza iturri hori eta, horren ondorioz, langile berri bila zebiltzala aipatu zidan lagun batek. Curriculum bidali eta udatik bueltan hasi nintzen.

Zein da zure lana?

Lan asko dago, baina elkarrizketak egiteko hartu ninduten ni. Hizkera eta ahozko ondarea jasotzearen beharra lehentasun hartuta, horretan gabiltza kuadrilla bat. Bakoitza eremu batean dabil eta nik Irun, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoain ditut batik bat. Lasarten ere banabil. Horitik aurrera, herrikoak eta etxekoak ere ez nituzke ahaztu nahi, beraz, lan asko dago egiteko! Nafarroan ere egin nahi ditut elkarrizketa batzuk.

Lan haundia al da?

Bai, batez ere kamara aurrean hitz egiteko hitzuntak topatzeak ematen ditu lanak. Baina kontusaioaren amaieran, jendea oso pozik gelditzen da hitz egindakoarekin eta horrek asko asetzen gaitu denok. Eurek ere pozik ikusteak asko lasaitzen nau ni behintzat.

Goizuetan lehendik ere



UTZITAKO ARGAZKIA

Ainhoa Ansa aranoarra joan den urtean hasi zen *ahotsak.com* ekimenean lanean.

baduzu elkarrizketaren bat egina eta *www.ahotsak.com* web orrian dagoena...

Lehendik hainbat proiektutan egindako grabazio batzuk badaude Goizuetan. Patziku Perurenak, esaterako, elkarrizketa batzuk utzi dizkio *ahotsak.com*-i. Eta nire kasuan, etxekoak ahaztu ezin eta, nire amonari ere egin diot dagoeneko elkarrizketa. Kontu asko ditu, eta kanta asko ere bai. Bere hizketa goxoak txikitatik gauza asko erakutsi dizkigu, eta jasota iza-

ARANON ETA INGURUAN

«Ez dut aukera bakar bat ere galdu nahi, herriarentzat –Arano-polita dela pentsatzen dut-eta. Goizuetarako ere, gauza bera pentsatzen dut. Nire bigarren herria da eta harentzat ere ona dela sinetsita nago»

teak merezi duela uste dut. Hark kantatutako bertsoak ondorengook ere ikas ditzagun eta bere hizkeraren xamurtasuna barnera dezagun.

Elkarriketak egiterakoan, gogoan gelditu zaitzun zerbait?

Etxekoak direnei jasotakoak aparte utzita, gogoan dut Lasarteko 94 urteko emakume batek bere gerra garaiko ibilerak nola kontatu zizkidan. Pelikula batean bezala ikusi nituen hark kontatutakoak eta kontu horiek izugarriak dira guretzat.

Aranon eta inguruan ere egingen al zenuke gauza bera?

Dudarik gabe. Egin ditut batzuk eta ahal izango banu gehiago ere egingo nituzke. Ez dut aukera bakar bat ere galdu nahi, herriarentzat polita dela pentsatzen dut-eta. Goizuetarako ere, gauza bera pentsatzen dut. Nire bigarren herria da eta harentzat ere ona dela sinetsita nago.

Zer beharko zenuke horretarako?

Materiala badut, eta beraz, hitzun egokiak biltuz gero, erraz egin dezaket edozein herritan gutxieneko bat. Baina behar bezalako bilketa bat egiteko, baliabide ekonomikoak ere beharrezkoak dira... Hala ere, Euskokultur ere Nafarroako Unibertsitatearekin batera ari da Nafarroako herrietan lan berdina egiten. Haien lana ere ezin dugu ahaztu, Nafarroako herri askotan hizkerak jasota baitaude haien lanari esker.

Zer erakutsi dizu lan honetik?

Gure aiton-amonek eta gurasoek duten jakinduria urteekin ikasten den zerbait dela. Bizitzaren unibertsitatean ikasi dutela esaten dute eta ez dute arrazoirik falta. Bizi izan dutenarekin eta orain ikusten dutenarekin ateratzen dituzten ondorioek zer pentsatua ematen dute.

AISIALDIA → OPORRALDIAK GELDI EGOTEKO EZ DIRENEAN

Gero eta ugariagoak dira eskualdean turismo aktiboa eskaintzen duten enpresak

Uda izaten da lan gehien egiten duten garaia, baina urte osoan jarduerak izaten dituzte aukeran

Mendia edo hondartza. Honela laburbiltzen zen orain urte batzuk arte oporraldietarako eskaintza. Gaurko egunean aunitz zabaldu da aukera hori eta badira oporrak kirol

eginez edo naturarekin lotura duten jardueretan parte hartuz pasatu nahi dituztenak. Turismo aktiboa gogoko duten horientzat hainbat enpresa sortu dira azken aldian eskualdean.

Aitor AROTZENA

Gauregun ugariak dira gure inguruan turismo aktiboa eskaintzen duten enpresak. Hondartzan egonean egon nahi ez dutenek, mendi ibilaldi gidatuak, ur-aktibitateak, zaldi ibilaldiak, paintball, mendi bizikleta, espeleologia edo azken aldian furri-furian dagoen segway-ean ibiltzeko aukera daukate, gure ingurutik mugitu gabe. Baina eskaintza hori ez da hain aspaldikoa.

Arlo honetan aitzindari izan zen **BKZ Bidasoa Kultur Zerbitzu**etako Mattari Altuartek aipatu digunez, 1993an hasi zirenean, «batere landu gabeko sektorea zen». Batez ere ikastetxeekin lan egiten dute ikasturtean zehar, Altuartek aipatu digunez: «Gure zerbitzuaren %80 inguru eskolei zuzendutakoa da, udalekuak... %20a izanzen turismo aktiboari dagokiona, landetxetara etortzen den jendea, batez ere familiei enfokatu... Guk eskaintzen du-

gun kainoi jautsiera edo Bidarraiko piraguak, hasierako mailakoak dira, lehen aldiz egiten dute nentzat».

Arizkungo **Ordoki zalditegia**n ere 18 urte daramazkete zaldi ibilaldiak eskaintzen. «Hona etortzen den turista mendiak ikustera eta lasai ibiltzera etortzen da, gu ibiltzen gara lekuetan ez da jenderik ibiltzen, lehengo karrobidetan ibiltzen gara eta ahal bezain guti ibiltzen ditugu pistak. Naturarekin lotua dagoen aktibitatea da», dio Francis Iriartek.

Arantzako **Aterpe** eta Beintza-Labaiengo **Orbela** aterpeen arrimoan, mendi ibilaldi gidatuak, espeleologia eta bertze hainbat aukera eskaintzen dituzte, urtean zehar ikasleendako batez ere eta udan eta asteburuetan turistei begira. Orbelako Mikel Albisuk aipatu digunez, «aurten 2.000 lagun inguruk parte hartuko du gure aktibitateetan. Bezero tipologiari dagokionez, %65 esko-

la eta aisiarako taldeak dira, %30 familiak eta kuadrilak asteburuetan eta %5 talde txikitak».

ESKAITZA BIDERKATU

Baina azken bi urteetan, eskaintza hori biderkatu egin da. **Basoan Zerbitzu turistiko enpresak** ibilaldi gidatuak eskaintzen ditu 2008ko udatik honat. Maialen Escaladak adierazi digunez, «Bertiz da lokomotora edo ardatz nagusia, baina bertze gauza batzuk eskaini nahi ditugu». Horregatik, Bertizko basoan ibilaldi gidatuak eskaintzen ditu, «biodibertsitatea ezagutu, gizakia-ekin duen interakzioa, basoaren erabilera, ikazkinak, mitoak eta kondairak... Bertizera etortzen den jende gehiena ez da basora sartzera ausartzen, eta hori bidexkak ederki seinalatuta daudela!», dio. Baztan-Bidasoan bertzelako ibilaldiak ere eskaintzen dituzte eta aterpean egiteko jarduerak landu nahi lituzke.



Mendi eta zaldi ibilaldi gidatuak, espeleologia, segway edo disc-golf... tur

AUZOA EXTREME BERAN - BERTIZ BTT DONEZTEBEN

2CV eta mendi bizikleta

Turismo aktiboaren arloan bi negozio berri sortu dira aurretik. Berako Auzoa Extremeko etxeko ezaugarria Citroën 2CVan egiten diren ateraldiak dira, baina bertze hainbat jarduerak eskaintzen ditu. Joxerra Mitxelenak aipatu digunez, «Auzoa hostalera etortzen den jendeak beti galdeztzen zuen zer egin zezakeen. Zerbait egin behar genuela gogoratu zitzaigun eta mugitzen hasi ginen. Duela bizpahiru urte hasi nintzen segway-en ibiltzen, probatu eta aunitz gustatu zitzaidan. Honat ekarri eta lardinen barna eta bertze lekuetan ibiltzen hasi nintzen; mendia ikusten ahal duzu nekatu gabe... Batek bizikleta zuela, bertze batek paintball, bakoitza bere aldetik ibiltzen zen jendea elkartu eta nolabait Auzoan bildu dugu eskaintza hori, hori da gure operazio-zentroa eta hortik koordinatzen da, baina denek ekimena da». Doneztebeko Ameztia jatetxearen arrimoan Bertiz BTT mendi bizikleta zentrua osatu dute. «500 kilometro baino gehiago duten 12 ibilbide egin ditugu –dio Jorge Iribarrenek–, maila ezberdinekoak, GPSan eta kartografian bilduak. Ibilbide bakoitzak bere eskuorria du, luzera, desnibela, banaz bertzeko denbora, zailtasuna, bidegurutzeeen argazkiak biltzen dituena. Hiru lagun aritu dira lanean bortz hilabetez horretan». Lokalean dutxak, tailerrak, garbiketa gunea, etxera itzultzeko furgoneta... eskainiko dituzte. «Aspaldian genuen buruan ideia, eta Bide Berdearen eta Euroveloren kontua atera zenean, azken bultzada eman genion, kasik 130 metro koadroko bajera hartu eta sartu ginen kontu honetan», dio Iribarrenek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

... turismo aktiborako aukera zabala.

Leurtza Abenturak familian egiteko jardue-
ra bereziak eskaintzen
ditu joan den urteaz ge-
roztik. Mitxel Ibarrolaren
erranetan, «Leurtza
Abenturako baliabideak
erabiltzen dituzten gehie-
nak familiak dira eta na-
turaz gozatzeko denon-
dako ekintzak bilatzen
dituzte. Uda garaian kan-
poko jendea ibiltzen da.
Udaberrian eta udazke-
nean berriz hemengoak,
Euskal Herriko jendea
despedidetan... Propo-
satzen ditugun ekintza
berriak ere, gustura das-
tazen dituzte».

Doneztebeko Ame-
ztia jatetxearen arimoan
sortu berri da **Bertiz BTT**
mendi bizikleta zentroa
eta Berako Auzoa osta-
tuaren inguruan, Berako
turismo aktibo eskaintza
bateratu egin da **Auzoa
Extremen**. Turismo akti-
boa egiteko aukera uga-
ritzera datozen azkene-
ko bi enpresak.

ATERPE



Aterpea eta aunitz gehiago

- **Noiz hasia:** 1994
- **Herria:** Arantza
- **Webgunea:**
www.arantza.net
- **Telefonoa:** 948 634179
- 647 759140
- **Arduraduna:**
Xabi Zugarramurdi
- **Zerbitzuak:** 114 litera
eta bikoteentzako 4 lo-
gela eskaintzen dituen
aterpea, espeleologia
Arruzpiko kobazuloan,
mendi itzuliak, zuhaitz
parkea, udalekuak eus-
karaz, ibilaldi gidatuak...
- **Denboraldia:** Urte osoa.
Irailean eta Eguberrie-
tan itxita.

AUZO EXTREME



Beran lehen aldiz aukera berezia

- **Noiz hasia:** 2010eko
ekainaren 15ean
- **Herria:** Bera
- **Webgunea:**
www.auzoaextreme.com
- **Telefonoa:** 948 631584
- 605864355
- **Arduraduna:**
Joxerra Mitxelena
- **Zerbitzuak:** Segwaya-
rekin ibilaldiak, buggy-
ak, bizikleten alokairua,
ur-motoak Donibane Lo-
hizunen, paintball, zaldi
ibilaldiak, trekking, pa-
rapente, kayak, 2 CV ibil-
bideak...
- **Denboraldia:** Urte osoa.

BASOAN



Ingurua ongi ezagutzeko ibilaldiak

- **Noiz hasia:** 2008ko uda
- **Herria:** Oiategi
- **Webgunea:**
www.basoan.com
- **Telefonoa:** 699 771374
- **Arduraduna:**
Maialen Escalada
- **Zerbitzuak:** Senderis-
moa, ibilaldi gidatuak
Bertizen «basoa eta
ingurua bertze begirada
batekin ikusteko» eta
Baztan-Bidasoan (Ago-
teen Ibilaldia Bozaten,
Gorramendiko Megali-
toak...). Neurira presta-
tutako ibilaldiak.
- **Denboraldia:** Urte osoa.

BERTIZ BTT



Mendi bizikletaz gozatzeko

- **Noiz hasia:** 2010eko
uztail hasieran
- **Herria:** Doneztebe
- **Webgunea:**
www.bertizbtt.com
www.ameztia.com
- **Telefonoa:** 948 450028
- **Arduraduna:**
Jorge Iribarren
- **Zerbitzuak:** 12 mendi
bizikleta ibilaldi eskual-
dean, markatuak GPSa-
rekin eta kartografiare-
kin. Dutzak, aldagelak,
tailerra, garbiketa-gu-
nea, furgoneta zerbitzua
etxera itzultzeko.
- **Denboraldia:** Urte osoa.

BKZ



Turismo aktiboan aitzindaria

- **Noiz hasia:** 1993
- **Herria:** Narbarte
- **Webgunea:**
navarraaventura.com
- **Telefonoa:** 948 592322
- 609 461741
- **Arduraduna:**
Mattari Altzuarte
- **Zerbitzuak:** Rafting, ur
lera, piragua, kanoraft,
zintzur jaitsiera, soka zir-
kuituak, paintball, men-
di bizikleta... Bertiz
Abentura Park, autobu-
sa, Bidarraiko ur basea,
aterpea, neguan ski al-
pinoa...
- **Denboraldia:** Urte osoa.

LEURTZA ABENTURA



Eskaintza berriak eta bereziak

- **Noiz hasia:** 2009ko uda
(enpresa 2008ko aben-
duan sortua)
- **Herria:** Doneztebe
- **Webgunea:**
www.leurtza.com
- **Telefonoa:** 620 379642
- **Arduraduna:**
Mitxel Ibarrola
- **Zerbitzuak:** Mendi bi-
zikleten alokairua ordu-
ka edo egun osoz, seg-
way x2, altxorbiling, disc-
golf, paintball laser, fes-
tetako puzgarriak, bisita
gidatuak, piragua, sen-
derismoa...
- **Denboraldia:** Urte osoa.

ORBELA



Aterpea, ibilaldiak, espeleologia

- **Noiz hasia:** 1996
- **Herria:** Beintza-Labai-
en
- **Webgunea:**
consorciobertiz.org
(mendi ibilaldiak)
- **Telefonoa:** 948 450014
- **Arduraduna:**
Mikel Albisu
- **Zerbitzuak:** 44 lagu-
nendako aterpea eta ibi-
laldi gidatuak talde, ikas-
tetxe eta familientzat.
Espeleologia Lezealde-
ko kobazuloan, udale-
kuak euskaraz
- **Denboraldia:** Urte osoa,
urtarrila eta otsaila izan
ezik.

ORDOKI ZALDITEGIA



Neurriko ibilaldiak zaldi gainean

- **Noiz hasia:** 1992
- **Herria:** Arizkun
- **Webgunea:**
www.ordoki.com
- **Telefonoa:** 948 453026
- 616160115
- **Arduraduna:**
Francis Iriarte
- **Zerbitzuak:** Zaldi ibi-
laldiak, hasi ordubete-
kotik eta aste osora ar-
tekoak. 12 lagunetik goi-
tiko taldeentzat eskain-
tza bereziak. Landetxe
eta aterpeekin duten
harremana medio, lota-
rako aukera ere eskain-
tzen du.
- **Denboraldia:** Urte osoa.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Udan

Mendi itzulixkara ahal bezain goiz joan eta poltsa bete plastikozko botila, lata huts eta zigarro pakete zimur ekarri dut herrira. Ondoa edo 20 eurokoak balira, denak bilduak, baina hantxe gelditzen dira, lurreko mamorroentzako espazio-ontzi gisa. Bota dituzten alajak ikusiz gero; «Barkatu, erori zaizu, etzazula galdu...». Siesta ondotik, telebistan Iruñeko Sanferminetan jendealdea, txupinazoa ote? Eeez, bezperako «fiesta nacional» delakoa duk, aurtengo zezenketarik arrakastatsuen ikusten, Del Bosqueren zezen gorriak omen. Bitartean, egunotan bestak nonahi, eta eguraldia bezalaxe zakartzen da zenbait bizidun arraildu. Leher ezin eginez, gisa guztietako zakilkeriak (edo alukeriak, nahiz eta ia beti zezenkoak izan) eginez trankiltzen dira. Eta finitzeko, egun idor hauetarako gomendioa: EUSKARA ongi ureztatu, kanpoko sapak hondarra ihar ez dezan. Frexko bixi!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Zaba(o)rkeria

Galletarik xixtrinena ere bere paperean, plastikoa eta kartoian bildua dagoenean zail da ehunka kilo hondakin ez sortzea. Edozein karrika, erreka edo mendi bazterretan botatzen zen berriki arte, baina bakoitza bere ontzira biltzen ikasi genuen, nahiz eta oraindik aunitz dugun ikasteko. Organikoarekin konposta egiten dela ere (ber)ikasi dugu. Eta ikasten segitzeko prest gaude.

Nabarmentzekoak



Mikel GOÑI
Baztandarren Biltzarrean

Aurkeztutako 21 karrozen artean Oronoz-Mugairikoak irabazi zuen Baztandarren Biltzarreko lehen saria. Tartean, Mikel Goñi pilotaria obispo lanean ere ikusi genuen umoretsu.



Josu UNSION
167 kilometro lasterka

Beasainen hasi eta bukatu zen Ehun Miliak mendi Ultramaratoia. 167 kilometroko proban 263 korrikalari abiatu ziren eta 121 heldu ziren helmugara. Manttalekoa 16. izan zen. Bikain!



Pepito YANCI
Omenaldia Irunen

Irungo Euskal Jiraren barrenean omenaldia eskainiko diote Lesako akordeoilari handiari abuztuaren 7an. Konpositore handia izan zen Yanci eta Los Xey talde ezaguneko kidea.

Atzera begira → 1992.07.30 / TTIPI-TTAPA 91. zbk



Amerikanoen base militarra Elizondoko Gorramendin

Yankiek Gorramendi okupatu zutenekoa izenburuarekin erreportajea argitaratu zuen duela hamabi urte TTIPI-TTAPAK. Zaila da sinesten AEBek Baztanen base militar bat eraiki zutela Gerra Hotzeko denboretan, baina Inazio Zalduak utzitako argazkiek ez zuten zalantzarik utzi. Gainera, baztandarrek aski ongi gogoratzen dituzte yankien auto ederrak, beraien janzkera dotorea eta txikleak, izugarritzko kolpea izan baitziren herriko bizitza lasaiarentzat. 1974an aldegin zuten etorri bezala, isil-isilik. Zalduak gogoratzen zuenez, «egun batetik bertara dena ezdandarazi eta ez zuten harri bat bertzearen gainean utzi. Gaur egun inork ez luke erranen han base militar bat egondu zenik».



Argitaratzailea TtiPI-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiPI.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariari eskutitza

Alejandro ARIZKUN (Ekologistak Martxan)

Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Planaren jendaurreko erakusketa azaroaren 15era arte zabaldu du berriki Nafarroako Gobernuak eta parte-hartze prozesua ireki. Nahitaezko erabakia zen, plana modu ilunean egin ondotik, hondakinen kudeaketaz arduratzen diren udal eta mankomunitateei informatu gabe. Lehen urrats hau baloratzen dugu, baina ez da nahikoa. Horregatik, zenbait proposamen egin nahi ditugu informazioa zabaltzeko eta gure hondakinen kudeaketarako dauden alternatibak defendatzerakoan aukera berdinak izateko.

«Materia organikoaren tratamendurako alternatiben estudiorik ez dago: konpostajea, biometanizazioa eta errausketa»

1. Planaren informazioa ez da egokia, bai diagnostikoa baita helburuei dagokienean ere. Parte-hartze prozesua baino lehen informazioa eman behar da: lehengo planaren azterketa; hiri-hondakin kopuruaren, bilketaren eta birziklatzearen datuak mankomunitatez mankomunitate.

2. Informazio guzia mahai gainean jarri behar da. Bertze alternatibak proposatzen zituzten dokumentuak bazeuden planean eta ez dira publiko egin. Berehala publiko egitea eskatzen dugu.

3- Materia organikoaren tratamendurako alternatiben estudiorik ez dago: konpostajea, biometanizazioa eta errausketa. Ezta erausketaren bideragarritasun estudiorik ere. Ekonomia, ingurumen, gizarte edo osasun datuak bilduko lituzkeen azterketa konparatiborik ere ez dago. Oinarrizko galdera hauei erantzunak falta dira: Zenbat gostako zaigu errauste planta batean Tona bat tratatzea? Eta konpostaje planta batean? Parte-hartze prozesuak zentzua izan dezan informazio horrek jendearen esku egon behar du, legez.

4- Planak balorazio arras negatiboa eta destruktiboa egiten du Jurramendi eta Tuterako plantez. Modu ulergaitzean, planak egitan funtzionatzen ari dena (bere mugekin, baina funtzionatzen du) bertan behera uzten du eta Iruñerriko Mankomunitatearen arazoa (tratamendu plantarik ez duena) Nafarroa osora hedatzen du. Jurramendiko kasuan bereziki larria da, Nafarroa osoko birziklapen indizerik onena baitauka eta lurrera botatzen da bere bilketa sistema eta konpost planta.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak emandako informazioak alternatiba jakin baten, balorizazio energetikoaren onurak bertzerik ez ditu azaltzen. Hortaz, ate irekien jardunaldi batzuk egitea eskatzen dugu, intereseko bertze gaiak aztertzeke, bilketa selektiboaren eta materia organikoaren tratamendu biologikoaren esperientziak, errate baterako.

Aroztegiako proiektu urbanistiko-espekulatzaila gelditu nahi dugu

Garbiñe ELIZEGI (Aroztegia... eta gero zer?)

Aroztegia... eta gero zer? plataformak uztailaren 17an Elizondon egindako manifestazioaren balorazio arras positiboa egiten du, parte-hartze arras haundia izan zen eta plataformaren helburuak gaitzen ziren. Bai manifestazioan eta bai igandean Baztandarren Biltzarran ere, herriak argi adierazi zuen bere nahia. Baztango herriak, berriro ere, herriaren hitza errespetatu dadin eta gutxiengo dirudunei bakarrik mesede egiten dien inposatutako proiektuak gelditzea eskatu zuen. Eskerrak eman nahi dizkiegu manifestazioari atxikimendua eman dioten pertsona eta talde guztiei. NaBairi ere eskerrak eman nahi dizkiogu zeren, kazikeen moduan jokatzuz, udal langileak gure pankartak eta kartelak soilik kenduaraziz, manifarako argi indar publikoa ukatuz eta egitasmoaren aurka direnek jasan izan dituzten presioek egiaztatzen dutelako «errespetua», «herritartasuna», eta «adierazpen askatasuna»ren inguruan dituzten kontzeptuak okerrak direla, eta honek gure borroka indartzen du. (...) Plataformaren helburuari dagokionez, arras argia eta zehatza izan da hasieratik: Aroztegiako proiektu urbanistiko-espekulatzaila gelditzea, gaiari buruz herri eztabaida abiatzea eta erabaki kolektiboak errespetatzea. Ozenago eta maizago erran daiteke, baina argiago ez!

«Legeek suteak izandako lurraren kalifikazio urbanistikoa aldatzea galarazten dute, gutxienez 30 urtetan»

Plataformak gauzatu dituen ekimenen artean Udalak ekainaren 7an egindako akordioa errekurritu du eta bere gain hartzen ditu Lekarozko Batzarrak bere egunean aurkeztutako alegazioak. Alegazio hauek guztiak Udalak gibelera botatu ditu eta bereziki larria iduritzen zaigu Aroztegiako lur eremuan dauden bideen jabetza ez argitzea. Berriro oroitarazi eta salatu nahi dugu Batzar Nagusiak 2005eko irailaren 29an erabakitakoa ez dela betetzen ari, akordio horretan Udalak Aroztegiako lur eremuaren mugapena egin behar duela adostu zen. Honela, Udalak berriro ere erakusten du Batzar Nagusiari dion «errespetua», eta nola erakunde hau erabiltzen duen interes partikularrak asetzeko eta ez, lur eremu publikoak defendatzeko.

«Harritzen» gaituen bertze afera Aroztegiako lur eremuan izandako sutearen inguruko alegazioari buruz Udalak errandakoa da. Udalak ez omen du agiririk lortu. Plataformak, aldiz, Udalak dituen baliabide eta kontaktuak eduki gabe parte horren berri eta kopia bat dauka. Sutea 2005eko martxoaren 23an gertatu zen. Proiektuaren arabera kaltetutako partzela hau familiabakarreko etxebizitzak eraikitzeke erabili nahi dute. Legeek suteak izandako lurraren kalifikazio urbanistikoa aldatzea galarazten dute gutxienez 30 urtetan (...). Honek proiektu hau bideraezina egiten luke.

Irakurleak mintzo

Alliet Marie
Senperen izan
den berriaren
inguruan

Juan Manuel GALARRAGA,
Eliane ETXEBERRIA,
Haritza eta Maider
GALARRAGA, Bruno JOSÉ,
Saroia GALARRAGA, Bittori
GARAÍAR, Mixel MENDIBU-
RU, Thierry LOPES,
Maiana MENDIBURU,
Joana HARAMBOURE,
Olivier BIBENS

Ekinaren 21eko as-
teko TTPI-TTAPA ha-
mabortzekarian, Mi-
chelle Alliot Marie fran-
tzes ministroan etorre-
ra aipatu duzue Senpe-
reko berrietan.

Pena eta haserrea
sentitu dugu artikulua
irakurtzerakoan. Hain

zuzen, kazetariak infor-
mazioaren parte bat ba-
karrik tratatzen du: ar-
gazkian, Michelle Alliot
Marie ministroa, eta
Amotzeko serora ikus-
ten dira, eta artikulu
osoa medaila emateari
buruz da.

Alta, momentu eta
toki berean, 60 pertso-
na bildu ziren, *Zer egin
duzue Jonekin, Alliot
Marie egia nahi dugu!*
banderolaren giblean.

Baina hortaz ez da
hitz bat ere aipatzen.

Ez al da Jon Anza-
ren afera aski larria?

Zergatik ez du aipa-
tzen kazetariak elgarre-
taratzea?

Guk, izenpetzaileok,
desinformazioa salatu
nahi dugu, eta gure eki-
menaren berri ematea
eskatzen diogu TTPI-
TTAPARI.



ARGAZKIA: GAIZKA IROZ

Michelle Alliot Marie Frantziako ministroa Senperera etorri
zenean, hainbat lagunek Jon Anzarekin gertatutakoaz
galdetu zioten.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien
kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro bai-
no gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du
gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira da-
tu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetara-
ko telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko di-
ra gutunak.



Bota bertsoa

Ainhua Zabaleta (Goizueta) • Neurria: Zortziko haundia

Herriz herri, festaz festa

Euskal Herriko txokoetako
festak dauzkagu hasita
haurrak jolasten, gazteak juergan
ta bikoteak zirrika.
Bertan ikusten da bihotzetik
irteten zaigun musika
bakoitzaren herria altxatzeko
ilusio ta irrika.

Nire herriari begiratuz
jarriko naiz gogoetan
Amabirjinak laister izango
bai ditugu Goizuetan.
Gonbidatuta zaudete denok,
elkartu gaitezen bertan!
Denak ez gara egongo baina
goza dezagun festetan!

11 galdera labur

**Baztandarra ala arraioztarra, zer
sentitzen zara lehenagotik?**

Arraioztarra, baina arraioztarra iza-
tea ez da baztandarra izateetik bereiz-
ten ahal.

**Merkatalgunearen irekiera aunitz
nabaritu al da herrian?**

Ez. Erosketak egitera joaten den jen-
dea saihebidetik ibiltzen da eta he-
rrian lehenagotik dagoen ostatuak
segitzen du izaten herritarren bilgu-
ne.

**Zer da turistak Arraiozera joateko
gehien erakartzen dituen?**

Jauregizarrea. Noiznahi ikusten di-
ra kanpotarrak jauregiari argazkiak
ateratzen.

Zer du faltan Arraiozek?

Herriko bestetako nahiz inauterie-
tako otorduak eta bertzelako ekin-
tzak, ikastaroak eta abar egiteko
azpiegitura; etxea, lokala edo
dena delakoa.

**Bestak irailean izanda, uda-
ko zein besta aukeratuko
zenuke?**

Ama amaiurtarra dut eta
Amaiurko bestak bereziak
dira niretako. Baina aur-
tengo Elizondoko egita-
raua ikusita, zer hau-
tatu aunitz bada.

**Eta zein da Grand
Prix-aren arra-
kastaren arra-
zoia?**

Irri egiteko

modua paratzen duela; haur, gazte
nahiz heldu, denek atsaldea irri sa-
noa eginez pasatzen dute.

**Aurtengoan zer izanen den aitz-
neratzerik bai?**

Aitzineko urteetako programaren
iduritsua izanen dugu. Bertze zen-
bait gauzaren artean, larunbat
atsean kontzertua Zutik-ekin eta
igandean kantaldia Panpi Portugal
eta bere taldearekin.

**Baztandarren Biltzarra, bestak ala
inauteriak. Zein nahiago?**

Zer zaila!! Baina, herriko bestak,
akaso.

**Aurtengo Baztandarren Biltzarra-
ri, 0tik 10erako nota bat paratze-
kotan, zer paratuko zenioke?**

9, bederen. Giro xarmanta izan zen.
Zorionak bestaren antolaketan ari-
tu direnei. Ostatua eta atseko
dantzaldia laxoko plazan
paratu izana, erabakiego-
kia izan dela iduritzen zait.

Udako oporrak non?

Egun batzuk kanpo-
an, leku berriak ezagu-
tzeko, eta bertze ba-
tzuk etxean, lagune-
kin eta etxekoekin
trankil egoteko.

**Gustura bisi-
tatuko ze-
nukeen
toki bat?**

Eskoia.



Gurutze MARITORENA ZUBIETA → Arraiozko gaztea

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?

HAU DA ZURE AUKERA



ELGORRIAGA

SAKONBETZ - BAINUETXEA

Errotaldea z/g
31744 Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnarioelgorriaga.com

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA



bakarrrik 10€ pertsonako

Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrrik arratsaldeetan)
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

**IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA**

astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan **26€ pertsonako**
larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan **29€ pertsonako**
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN BEHAR DA
Ezin zale bertze eskaintza edo promozioei gehitu



- Eskapeten sailmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza gaiak
- Ehiza balmenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak
edredoi nordikoak
mantak
maindireak
ohe estalkiak
mantelak
albornozak
toailak
kuxinak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

XIMON
harategia

FESTA ONAK
IGAROTU!

948 514 056
GOIZUETA

ZABALETA taberna

ONGI PASA BESTAK!!!

Nagusia, 42 • 948 514 063 • GOIZUETA

Izkiña jatetxea

Tel. 948 514 102 • GOIZUETA

Ongi pasa bestak!

pentxoak • bazterak • arrak • bokak • esandak • menuak

analak, apezetxea!

ongi pasa bestak

Idoeta, 71 • 1º • 31745 GOIZUETA
Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 80
www.apezetxeanalak.com
excavaciones@apezetxeanalak.com

Goizuetako Udalak
festa onak
opa dizkizue
goizuetar eta
bisitari guztiei



GOIZUETA

abuztuaren 8an eta 13tik 19ra



abuztuak 8 IGANDEA (Haurren Eguna)

07:00 Aurorak herrian Umore Ona Koruaren eskutik. **11:00 Meza**, haurrak bertako jantziekin joango dira. **12:30** Pilota eskolako gaztetxoek arteko **partidak**. **17:00** Lastur-en eskutik **zezenak** eta **poniak** plazan. **18:30** Haurrentzako **berendua**. **On-doren Bonba japoniarrak**. **Ondoren Gabezin** musika taldea.

abuztuak 13 OSTIRALA (Gazte Eguna)


12:00 Bideo emanaldia Gaztetxean: 5 urte-5 gazte egun. **13:00 Triki poteoa** herriko trikitilariak. **14:30 Gazte bazkaria**. **17:30** Kuadrillen arteko **ginkana**. **20:00 Gazte txupinazoa** Gaztetxean. **Ondoren Zo Zongoren** ikuskizuna Gaztetxean. **Ondoren poteoa** Zo Zongo **batukadarekin**. **00:00** Dantzaldia plazan **Tximeleta** taldearekin.

abuztuak 14 LARUNBATA (Amabir jin bezpera)

08:00 Entzierroa Lasturko zezenekin. **12:00** Udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emango dien **itxaferoa** botako da. **Ondoren** trikitilariak **erraldoi** eta **buruhandiek**in kaleetan barrena ibiliko dira. **Euskal presoek aldeko brindisa** egingo da **Etxeraten** txoznan. **19:00 Umore Ona Peñaren irteera** Ganyegitik **Igandea** txaranga-ekin. **00:00** Dantzaldia **Haitzama** taldearekin. **Ondoren Igandea** txaranga.

abuztuak 15 IGANDEA (Amabir jin eguna)

07:00 Tolosako dultzaineroekin **diana**. **08:00 Entzierroa** Lasturko zezenekin. **10:30 Meza Nagusia** eta ohiko **prozesioa** Amabirjinarekin. **12:00** Herriko **txistulariak** **erraldoi** eta **buruhandiek**in kaleetan barrena ibiliko dira. **12:30** Lehengo mailako afizionatuen arteko **pilota partida** Apezetxea-Galarraga, Azpiri-Landabururen kontra. **13:30 Igandea** txarangaren irteera ikastolako tabernatik. **18:00** Lasturko gadutegiko **zezenak**. **19:30 Bertso saioa**: J. Soto, M. Lujanbio, S. Kolina, I. Zubeldia. **22:00 Euskal presoek aldeko aforia** Umore Ona Elkartean. **00:00** Dantzaldia **Haitzama** taldearekin. **Ondoren Igandea** txaranga. **01:00 Euskal presoek aldeko kalejira** plazatik.





abuztuak 16 ASTELEHENA

12:00 Herriko txistulariak erraldoi eta buruhandiekin kaleetan barrena ibiliko dira. **12:30** Lehenengo mailako afizionatuen arteko **pilota partida**. Nabarte-Lopez, Renobales-Zubiriren kontra **13:30 Igandea** txarangaren irteera ikastolako tabernatik. **17:30** Lasturko ganadutegiko **zezenak**. **19:00 Umore Ona** Dantza Taldearen emanaldia. **00:00** Dantzaldia **Laket** taldearekin. **Ondoren Igandea** txaranga.

abuztuak 17 ASTEARTEA

11:30-14:00 / 16:30-18:00 Haurrentzako **puzgarriak** eta **elastikoak**. **13:30 Igandea** txarangaren irteera ikastolako tabernatik. **16:30 VII. mus txapelketa** Ixkibin. **18:00** Lasturko ganadutegiko **zezenak**. **19:30 Profesionalen arteko pilota partidak**: lau t'erdian, Sukia-Zabaleta eta ondoren Cabrerizo-Ladis Galarza, Apezetxea-Cecilioren aurka **20:00** Dantzaldia **Laiotz** taldearekin. **00:00** Dantzaldia **Laiotz** taldearekin. **Ondoren Igandea** txaranga.



abuztuak 18 ASTEAZKENA (Ezkondur eta Umore Ona Penaren eguna)

12:30 2 pilota partida: lau t'erdian, lehendabiziko mailako afizionatuak: Mendizabal-Yoldi eta aspaldiko ohiturari jarraituz **Goizueta** (Apezetxea-Nabarte)-**Arano**(Uitzi-Legarreta) aurka. **Ondoren Igandea** txaranga kaleetan. **15:00** Umore Ona Penaren **bazkaria**. **Ondoren** penaren **kalejira Igandea** txarangarekin. **Ondoren** Lasturko ganadutegiko **zezenak**. **Ondoren** dantzaldia **Laiotz** taldearekin. **00:00** Udaletxe aurrean Amabirjinei bukaera ofiziala emango dien **ekitaldia**. **Ondoren** dantzaldia **Laiotz** taldearekin. **Ondoren Igandea** txaranga.



abuztuak 19 OSTEAGUNA

(Udala eta Ikastolako tabernaren artean antolatutako jaia)

12:00 Gipuzkoako eta Nafarroako sagardogile onenen parte-hartzearekin **sagardo probaketa** plazan. **17:30 Berendua**. **18:00** Haurrentzat **sorpresa**. **19:00** Toka txapelketa heldu eta haurrentzat.

antsa
janaridenda
FESTA ONAK
EGARDO
GOIZUETA

ZABALA Y GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK
ONGI PASA BITTARI
Gure Ametsa GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28 M. 679 47 98 93 - 679 47 98 78

UMORE ONA
ELKARTEA
Festa ederrak pasa!
bai
GOIZUETA

MAI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Jai zortzizueak
opa Aizkizueak !!
bai
K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

ASISTENCIA DOMICILIARIA
ZENTURIA
Zure zerbitzua eguneko 24 orduko...
...arteko 365 egunak
► Arreta pertsonalizatua - garbitasuna-Jaki Oheratu
► Familia-laguntza - etengabeko laguntza
► Etxe-laguntza - garbitasuna - konpainia
► Fisioterapia - produktu naturalak
► Asteburua - familiaren atsedenaldia
► Gaiak - ospitalea/etxea
► Barneko langileen kudeaketa
► Prestazio ekonomikoaren kudeaketa
(mendekotasun legea)
ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA
INON EZ!
Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698
ayudadomiciliaria@zenturia.es
www.zenturia.es

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alzale, 17 · BERA

Estegana, 41 • 948 630 898 • BERA
carroha®
Gozotegia • Okindegia

GAZTELU OSTATUA
Besta eukit pusu!
AMAIUR • 948 453 252

MENDIALDE
Ora pusu berak!
Jatetxea
948 453 060
N-121-B • 58 km
AMAIUR

ANTXITONEA
24 lekuak bosttuturak: Aterkalekua
Aire purua gela gutxiak: Hori muskela eta TB
Gela berria sakaldu eta hosto azpituturak
Bradío Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK
Arotxa
Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073



AMAIUR abuztuaren 13tik 17ra

Jose Antonio IRIARTE | Antolaketa taldekoa

“Artzain Eguna da egunik politena, baina buruhauste gehien ematen diguna ere bai”

Hamabi-hamabortz lagunek taldea biltzen da Amaiurko bestak antolatzeko. Horien ordezkari **Jose Antonio Iriarterekin** izan gara eta berak aipatu digunez, igandeko Artzain Eguna izanen da ekitaldirik garrantzitsuena.

Nola antolatzen dituzue Amaiurko bestak?

Bueno, bagara gazte kuadrilla bat, 12-15, beti mundu hortan ibiltzen garenak, eta urtero batek gauza batzuk, bertzeek bertzeak, denen artean egiten dugu.

Noiz hasten zarete bestak antolatzen?

Hasi otsail hondarrean normalki, lehendabiziko bilera orduan egiten dugu.

Eta gero astero edo elkartzan zarete, edo noizbehinka?

Lehenbizian bi aste edo hilabetean behin bilera egiten dugu, baina gero bestak hur-biltzen ari direlarik, gero eta gehiago.

Bestak antolatzerako orduan zein izaten da buruhauste gehien ematen duen eki-taldia?

Artzain Zakur lehiaketaren Eguna.



Zuretzako zein da bestetako egun politena?

Ez dakit. Denek dute zerbait berexia. Artzain Eguna ere polita izaten da.

Artzai Egunean jende aunitz biltzen al da Amaiurren?

Bai, normalki bai, denbora ona baldin bada jende dexente etortzen da.

Krisia goiti eta beheiti... Zuek nabaritu al duzue bestetako aurrekontuan?

Guti goitibeheiti iazko aurrekontu berdintsue izanen dugu, guk momentuan ez dugu krisirik somatu bestetarako aurrekontuan, orain ikusiko da bestak pastekin zer gertatzen den.

Bestetako ekitaldi nagusia Artzain Eguna da, baina ba al da jende aunitz ekartzen duen bertze ekitaldiren bat?

Ez, Artzain Eguna da garrantzitsuena. Baina Baztan Zopetara ere jende aunitz etortzen da.

Aurtengo egitarauan zerbait berria sartu al duzue?

Berdintsue da, bada igual zerbait aldatu dena, baina printzipioz gauza berak izanen ditugu.

abuztuak 13 ORTZILERIA

20:00 Suziriak eta ezkil jotzea. Izadi txaranga herrien barna. **21:00** Baztan Zopak txaranga eta Joxe Anjelek alaitue. Sarrerek Amaiurko Gaztelu ostatuan eta Elizondoko Txokoton eta Antxitonean. **00:30** Gaupasa Gaubela taldearekin.

abuztuak 14 LAUNBETA

12:00 Mus zimizte, irabazlearendako zikiro txar-telak. **17:30** Esku-pilota partidek. **19:30** Herri-kirolak. **20:30** Mutildantzak, muxikoak, gaita... **23:00** Rock kontzertuek frontoi aldean. **00:30** Gaupasa Garraxi taldearekin. **06:00** Zinger jatea monumentuen.



abuztuak 15 IGENDIA (Amabir jin Egune)

10:30etik aitzinera artisauak eta ardi lehiaketa trikitilariak alaitue. **11:00** Meza Nagusia. **13:00** Mutildantzak eta hameketakoa kanpoan bizi diren herritarren-tzat. **17:00** Artzain zakur desfilea trikitilariak alaitue. **17:30** XXXV. Artzain zakur lehiaketa eta Patxi Etxeberriaren VI. Memoriala. **19:30** Perurena aita-semeak eta sokatira. **20:30** Kantaldie (Noka). **22:00** Mutildantzak, muxikoak eta gaita. **23:00** Mexikarrak.



abuztuak 16 ASTELEHENA (Haur eta gazte Eguna)

10:30 Herriko txistulariek. **11:00** Haurren esku-pilota finalak. **14:00** Haurren bazkarie elkarte-an eta bazkari autogestionatue Gazteluzokoko presan: Amaiurko beltzak BERDEZ!!!. **16:00** Haur jokoak plazan. **19:00** Txokolatada haur eta gu-rasoen-tzat. **19:00** Paella lehiaketa. **20:00** Dant-zaldia Joxe Angelen eskutik. **21:00** Mutildan-tzak, muxikoak eta gaita. **21:30** Paella jatea eta paella hoberenari sarie. **23:00** Dantzaldia Joxe Angelen eskutik. **00:00** Txokolatada.



abuztuak 17 ASTEARTEA (Zikiro Egune)

11:00 Pala finala. **13:00** IX. Boneta jaurtiketa. **14:00** Zikiro jatea Luzianok alai-tue. **20:00** Dantzaldia Luzianokin. **21:00** Mutildantzak, muxikoak eta gaita. **23:00** Dantzaldia Luzianokin. Ondoren kazeroladakin batian, Gaizoa ni!



ABACDEL
Análisis clínicos
FMC
Análisis clínicos

- Hematología
- Odol biokimika
- Eitremia probak
- Diabetes
- ODI serologia
- Tiroide
- Hormona probak
- Tumore markatzaileak
- Gutxo analisia
- Elkagaien berrikuntza

Ramón González-Vallinas
ANÁLISIS CLÍNICOS Y DE INVESTIGACIÓN

Leizorria, 1 - behea • 20008 DONOSTIA • T. 943 210 872
abacdel@yahoo.es • www.abacdel.com

Mendialde
gasnategia

629 684 355
AMAIUR

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



ARANTZA

abuztuaren 13tik 17ra eta 21aean

Aitor TELLETXEA | Kultur zinegotzia

“Haurren Egunean Iruñeko Erraldoien Konpartsa etorriko da aurten”

Azken hilabeteak burubelarri prestaketa lanetan pasatu ondotik, bestak antolatze lan gehiena egin dagoela topatu dugu Aitor Telletxea kultur zinegotzia. Egitarauan bi aldaketa nabarmendu dizkigu: “Alde batetik, Haurren Egunean Iruñeko Erraldoien Konpartsa etorriko da. Eta bertzetik, normalean arratsalde-ilunabarrean hasi izan dira bestak, eta aurten larunbat eguerdian hasiko dira”. Aurrekontua murrizteko asmoa da bestak eguerdian hastearren arazoia. “Bertze urteetan bortz egun izaten dira, abuztuaren 14ko ilunabarrean hasita. Baina aurten, aurrekontua murrizte aldera, eguerdian hasi eta lau egun osorik egitea pentsatu genuen”, azaldu digu. “Lehen bortz egun ez ziren osoak, eta orain lau osoak izanen dira”. Aurrekontuan ere beherakada nabarmena egin du Arantzako Udalak: 4.000-5.000 euro inguru murriztu ditu. Aitorrek aipatu digunez, “joan den urtean 20.000 eurokoa genuen eta aurten 15.000 eurotan sartuko garela pentsatzen dut”. Eta helburu horrekin kendu dute urtero egin ohi zen udaltxeko bazkaria ere. Dena den, Udalaren nahia lau eguneko bestak antolatzea bazen ere, txupinazo eguna baino lehenagotik eta egitarauko azken eguna pasatu ondotik ere, izanen da mugimendua herrian. Izan ere, “Gazte Asanbladak ortziralean, abuztuak 13, musika-taldea paratuko du, eta Ekaitza Elkartean afaria ere izanen da”. Gainera, abuztuaren 21ean, Arantza Rock 2010 egingen da. Aurrekontu murriztuarekin, baina besta egun aunitz, beraz.



Aitor Telletxea kultur zinegotzia.



ARANTZAKO UDALAK

besta onak opa dizkizue arantzar eta bisitari guztiei

abuztuak 13 ORTZIRALA (Besten bezpera)

21:00 Elkartasun afaria Ekaitza Elkartean. **00:00** Dantzaldia plazan **Trikihots** taldearekin. **Atsedendian** Mingainluze.




abuztuak 14 LARUNBATA (Besten hasiera)

12:00 Altzaferua Herriko Etxetik. **Ondotik preso**en aldeko **brindisa** eta **kalejira** herriko txistulari eta **Izadi** txarangarekin. **12:30 Herriko dantzari** ttikien emanaldia. **18:00 Haurrentzako tailerrak**. **19:00 Herri Kirolak** frontoian: Nafarroako Herriz Herri Txapelketa. **20:00 Dantzaldia Trikitake** taldearekin. **20:30 Herriko dantzari helduen emanaldia**. **00:00- 04:00** Dantzaldia **Trikitake** taldearekin. **Atsedendian** bingoa.



abuztuak 15 IGANDEA (Amabir jin Eguna)

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. **11:00 Meza Nagusia** eta **prozesioa**. **12:30** Herriko dantzariak **zortikoa** dantzatuko dute. **18:00 Haurrentzako tailerrak**. **19:00 Profesionalen pilota partidak** frontoian. Lauterdian: Camarero II-Bengoetxea VII.a. Bikoteka: Amantegi-Mitxelena, Mikel-Gorriti. **20:00** Dantzaldia **Trikidantz** taldearekin. **21:30 Suzko zezena**. **00:00-04:00** Dantzaldia **Trikidantz** taldearekin.



abuztuak 16 ASTELEHENA (Haurren Eguna)

09:30 Kafea eta **ttantta** plazan herriko trikitilariak alaiturik. **10:00 Desafiua** Herriko Plazan. **12:00 Kalejira** erraldoien konpartsa ttikiarekin. **14:00 Haurren bazkaria**. **16:00 Haurrentzako puzgarriak** frontoian. **17:00 Plater tiroketa** Usua Ehiztarien Elkartearen eskutik. **20:00** Dantzaldia **Jalisko Band** taldearekin. **21:30 Suzko zezena**. **00:00-04:00** Dantzaldia **Jalisko Band** taldearekin.



abuztuak 17 ASTEARTEA (Besten bukaera)

10:00 Argisoinuak herriko musikariekin. **11:30 Mus txapelketa** eta **pilota partidak** Ekaitza Elkartearen eskutik. **12:00 Buruhaundiak** plazan. **14:00 Herri bazkaria** plazan. **Bertso poteoa** eta **kalejira** **Izadi** txarangarekin. **20:00** Dantzaldia **Salaberri**ekin. **00:00-04:00** Dantzaldia **Salaberri**ekin.



abuztuak 21 LARUNBATA (Arantza Rock 2010)

19:00 Poteoa. Arantzako batukada. **21:00 Ogitartekoen jatea** plazan. **23:00** Kontzertuak: **Erru Gabe**, **Vendetta**, **Ze Esatek!**, **Bad Sound System**.



BURLADA
Jateketa

- Menua
- Karta
- Bokatak
- Plater konbinatuak

GIRD GOXOA

Tel: 948 634 027 - ARANTZA

ARANTZA
Zurgindegia

- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisurik gabe

Jose Miguel Errandonea
947 610 144

Gerritxaketa - ARANTZA

PRIMI
ostatua

Tel. 948 634 052 - ARANTZA

PABLOENEA
Gela 4, 5 - ARANTZA - 948 634 077

- Menua
- Karta benetako
- Plater konbinatuak
- Dantzariak
- Hamburguesak
- Pizza
- Sandwich

ORRE FASA RESTAURANTE

ETXALAR
HOTEL/VENTA

40 logela erabat osatuak (komun eta To-ekin)
300 lagunendako bankete-jangela
Jangela pribatua
Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak
Brasan egindako platerak
Ostatua
200 ibilgailuntzako parking publikoa eta Parking pribatua
Padel pista
Igerileku klimatizatua
Sauna, Solarium eta hidromasala
Bapore bainua eta mini-gimnasioa

Iruña-Iruñ errep. 70 km
Etxalar (Nafarroa)
Tel.: 948 635 000 - Faxa: 948 635 263



www.euskron.com

ONDO PASA BESTAK!

EUSKRON SA

Pasa Pasabak • tudon@euskron.com • Tel. 948.51.00.00 • Fax. 948.51.00.00

gastelu scl

Kalefakzioa • Gasa
Saneamendua

Iturgintza

31000 LEITZA

Tel: 948 61 00 86 / 51 01 56
Fax: 948 61 08 86
gastelu@infonegotia.com

ULI-ZAR ELKARTEA S.L.

ITURGINTZA | KALEFAKZIOA
GASA - GASOILA
KOMUNERAKO OSAGARRIAK
MOBLEAK | MANPARAK

Pesta zoriontsuak igarot!

Bide-ondo etxea • ARESO
948 610 678 • 689 701 557

SASTINEA
jaletxea

ongi igaro pestak!!

ARES0 • Tfnoa.: 948 610 704

elika
Dietetika u. elikadura

• Alakuntza dietetiko eta nutrizioa
• Dieta personalizatuak
• Gorpuzko konposizioaren azterketa
• Elakadura heziketa

(Elakura osasuntsua)
Elakuntza eta elakadura osasunak
Elakura osasunak eta elakura
Elakuntza osasunak

Iñaki Andueza Larra
Iznea, 6 beheko • BERA • Tel. 948 631 283 • elikabera@hotmail.com

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27



ARESO abuztuaren 14tik 18ra



Jaione Olazabal zinegotzia.

Jaione OLAZABAL | Zinegotzia

“Amabirjin eguneko bazkariaz aparte, otordu guziak plazan egiten dira”

Gauzak denen artean eginez gero, dena da errazagoa. Eta Areson ere, Festa Batzordeari esker Amabirjin festak antolatzea ez da buruhauste haundia izaten. Haxe adierazi digu Jaione Olazabal Aresoko zinegotziak. Hori bai, lanak garaiz hasiz gero, hobeki. Horregatik hasi ziren Eguberriak pasatu eta gero, musika taldeak aukeratu eta kontratatzen. “Aurrerago berriz biltzen gara gainontzeko gauzak egiteko. Baina musika taldeak lehenbailehen egiten saiatzen gara, gero gabe ez gelditzeko”.

Herriko elkarte guztiek parte hartzen dute Festa Batzordean: bi soziedadeek, Guraso Elkarateak, Gazteen Elkarateak, Ehiztari Elkarateak... Eta Olazabalek azaldu digunez, “lehenbiziko bilerak beraiekin egiten ditugu, bakoitzak bere lanak hartzeko”. Izan ere, arduak banatu egiten dituzte: “kuadrilla batek parrillada antolatzen du, beste batek txistorrada, bazkariaz herriko elkarteak arduratzen dira, afariaz Guraso Elkaratea...”. Hortaz, “buruhauste haundiegirik ez da izaten”, dio Jaionek.

Aurreko urteekin alderatuz, ez dute berrikuntza haundirik sartu egitarauan, baina esan digunez, “gauzak egitarauan sartu ezinik ibiltzen gara. Gauza asko okurritzen zaizkio jendea eta...”. Nobedaderik ez, baina azken hiruzpalau urteotan izan diren ekitaldiei eutsi nahi diete: Kuadrillen Egunari, adibidez. “arrakasta ikusita mantendu egin nahi ditugu”, dio Jaionek.

Aurrekontua murrizten ere saiatu direla argitu digu aresoarrak, baina bere hitzetan, “ez da erraza”. Dena den, musika talde onak ekartzeko ohitura eduki arren, egun batean merkexeagoa ekartzen saiatu dira.

Eta zerbait nabarmentzeko eskatuta, “plazako giroa” erantzun digu. “Hilaren 15ean jendeak normalean etxean bazkaltzen du familiarekin, baina hortaz aparte, nik uste egun guztiak eta otordu guztiak plazan egiten direla”. Horrekin batera, “festazalea” den heinean, egun guztiak gustukoak dituela ere aitortu digu.

Lerro hauen bidez, festa onak izan daitezen, laguntzen eta parte hartzen duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie Olazabalek.

abuztuak 14 LARUNBATA (Pesta Bezpera)

16:00 Haurrentzat jokoak plazan Guraso Elkar-
teak antolatuta. **Ondoren** arratsaldekoa hau-
rrentzat. **17:30** Etxafuegoa botako da pestei ha-
siera emanez. **Ondoren** kalejira egingo da he-
rrian barrena herriko trikitilariekin. **18:00** En-
tzierro txikia haurrentzat herri osoan, Zubiditik
hasi eta plaza zaharrean bukatuz. **19:00** Patata
tortilla lehiaketa plazan. **Iluntzean** buruhandiak
aterako dira eta **goxokiak** banatuko dira umeen-
tzat. **20:30** Herri afaria plazan. **23:30** XXV. Mus
txapelketa herrikoia udaletxean.



abuztuak 15 IGANDEA (Amabirjin Eguna)

09:30 Diana herriko txistulariekin. **11:00** Meza
Nagusia, bertan udal ordezkariak lagunduaz he-
rriko dantzariak arkua egingo dutelarik. **Ondo-
ren** ohiko hamaiketako eskainiko du udalak pla-
zan. **12:00** Herriko haur eta gazte txoeak eskaini-
ta Aresoko ingurutxoan plazan. **13:00** Pilota par-
tiduak plazan. **18:00** Aizkolariak plazan. **Ondo-
ren** Aresoko ingurutxoan. **Arratsaldean eta ilun-
tzean** Giro Arte dultzaineroen emanaldia plazan.
Iluntzean buruhandiak aterako dira eta **goxokiak**
banatuko dira umeentzat. **00:00** Dantzaldia Izer
eta Alabier trikitilariekin.



abuztuak 16 ASTELEHENA (Kuadrillen Eguna)

09:30 Diana herriko trikitilariekin. **11:00** Kalejira herrian barrena txarangak la-
gunduta. Kuadrillek hamaiketako jarriko dute herriko auzoetan. **15:00** Paellada
erraldoia kuadrilla guztientzat plazan. **Ondoren** Guillermo Seguiolaren txiste ema-
naldia. **18:00** Jokoak kuadrillentzat. **Ondoren** trontza apustua: Mikelatxo - Jua-
na Mari / Itxaso - Uxue. **Iluntzean** buruhandiak aterako dira eta **goxokiak** bana-
tuko dira umeentzat. **21:30** Bokadillo jana plazan. **00:00** Dantzaldia Imuntzo eta
Beloki taldearekin.

abuztuak 17 ASTEARTEA (Umeen Eguna)

09:30 Diana herriko txistulariekin. **11:00** Puzga-
rriak, tailerrak eta jokoak haurrentzat. **13:00** He-
rriko gazte txoeen arteko pilota partidak plazan.
14:00 Haurrentzat bazkaria plazan Guraso El-
kar-teak antolatuta. **16:00** Plater tiroketa herri-
koia Usoa elkarteak antolatuta. **17:15** Herriko
haur eta gazte txoeak eskainita dantza emanaldia
plazan. **18:00** Patxin eta Potxin pailazoan ema-
naldia plazan. **19:00** Entzierro txikia haurrentzat
herri osoan, Zubiditik hasi eta plaza zaharrean
bukatzuz. **Ondoren** Tximeleta taldearen emanal-
dia plazan. **Iluntzean** buruhandiak aterako dira
eta **goxokiak** banatuko dira umeentzat. **21:30**
Herri afaria plazan Guraso Elkar-teak antolatu-
ta. **00:00** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.



abuztuak 18 ASTEAZKENA

09:30 Diana herriko trikitilariekin. **14:00** Herri bazkaria plazan Pake-Toki eta La-
rra elkarteak antolatuta eta Amets Arzallus eta Iker Zubeldia bertsolariek alai-
tuta. **18:00** Bertso-pilota partida. **19:00** VII. Sagardo dastaketa, txistorra eta sar-
dina errekin. Freskagarriak egongo dira haurrentzat Gizarte Zerbitzuaren la-
guntzarekin. **Bitartean** VIII. txapel jaurtiketa plazan. **Iluntzean** buruhandiak ate-
rako dira eta **goxokiak** banatuko dira umeentzat. **21:00** Bideo emanaldia. **00:00**
Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **Ondoren** DJ Bullen emanaldia.

Eskisaroi
Jaiak
Jaime Urtutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

BIDASOA
TELURAK - FORTUNEAK
VITONAK - AUTOMATIZAK
MONTAJE - REPARAZIOA
T.F. 943 81 50 60
Auzolari Lopez de Guereña, 3
BILIN - BERA

GOZZ-AID
Jaiak
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

**HERNAN-
ESTRE-
LOZATZ**
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 053542219
Mariano eta Yvonne
SARA

**BAR
BOIXO
OSTATU**
Zalain - BERA
948 630 052

kattogoria
Lentzia
Bamartza
Marta
Jana
Pablo
Berehala plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 518

**FRUTAS
VERDURAS
BRANDONEA, S.L.**
FRUTAS DE CALIDAD
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

**Koipe eta olio bereizleen
kutxatilen garbiketa**

Sukalde industrialetako Koipe
eta olio bereizlee Kutzatilen
Garbiketa eta Kudeaketa
ZERBITZU INTEGRAL BERRIA
(LER 190809 hondakina).
Honekin administrazioaren
aurrean sukaldeko uren
kudeaketa egokia frogatu ahal
izango duzu eta Legea bete.

ECOGRAS

**Erabilitako
landare olioaren
bilketa**

Zaindu zeure ingurumena!
Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es



DONAMARIA abuztuaren 14tik 18ra

Iñaki TELLETXEA | Kultur zinegotzia

“Bestetako azken egunean bixita egiten diegu moiei eta arront egun polita da”

Donamariako Udala eta gazteak arduratzen dira bestak antolatzeaz, Iñaki Telletxea kultur zinegotziak aipatu digunez. “Martxo aldera herriko gazteekin elkartzen gara musika taldeen inguruan aritzeko eta ekain hasieran gainerako gauzetaz ar-

jokoak...”, dio. Berrikuntza handirik ez dute izanen egitarauan, baina patata tortilla lehiaketa ondotik egiten den afaria, kantu afaria bilakatu nahi dute aurtengoan. “Ez, orokorrean urteroko programa beretsua prestatu dugu. Berrikuntza bezala, abuztuaren 17an, patata tortilla lehiaketa ondotik egingo den kantu zaharren afaria aipatzen ahal dugu. Egun honekin normalean 200 lagun inguru biltzen gara herriko frontoian afaltzeko eta aurtengo orri batzuk banatuko ditugu tripa bete ondotik kantuan aritzeko. Espero dugu jendea gustatzea”, adierazi digu.

Aurrekontuari dagokionez, joan den urtekoaren berdintsua izanen dela jakinarazi digu. Bere ustez, bestetako egunik arrakastatsuenak azken eguna izaten da, herri bazkariarekin. “200 lagun inguru biltzen gara, —dio Telletxeak— herriarghiak bertan izaten gara. Azken eguna izanta besta handia egiten dugu eta sekulako giroa izaten da. Abuztuaren 16an egiten den aitzakia apustuan ere jende aunitz biltzen da, herrikoa eta kanpotarra”. Bestetako azken egunak bertze berezitasuna ere izaten du, herriarrak komentura joaten baitira moiek bixitatzen. “Egun hau berexia izaten da denentzat. Herriarghiak elkartzen gara, adin guzietakoak eta bazkari ederra egiten dugu. Bazkaldu ondotik bertsolari eta musikariekin komentura joaten gara eta han bertsolariek bertsoak eskaintzen dizkiote moiei. Bertara joaten garenok ere abesti batzuk kantatzen ditugu. Moiek ere kantu batzuk abesten dituzte eta jota eta arinarina dantzatzen dute. Gustura hartzen gaituzte beraiek. Urte osoan ikusten ez duten jendea agurtzen dute, jende berria ezagutzen dute... Eta esker moduan eroskila bandeja batzuk ere banatzen dituzte guztion artean jateko. Arront egun polita da hau”, aipatu digu Iñaki Telletxeak. Egun hauetan, kargua eta bestarako gogoa uztartu behar izaten dute alkate eta zinegotziak. “Niri eta gainerako zinegotziei egun hauetan lan pixka bat egitea tokatzen zaigu, herri bazkariako gauzak erosi, antolatu, aitzakia apusturako egurrak prestatu, egunean eguneko ekitaldiak pixka bat antolatu... Amabirjin Egunean ere elizara joaten gara Meza Nagusia entzuterat. Hala ere, bete beharrak eta besta ongi uztartzen ditugu” erran digu. Donamariako bestetan ez du deusen faltarik somatzen, baina dantzaldietan jende helduak gehiago parte hartzea gustatuko litzaioke: “Ez, ez dut deus faltan somatzen. Igual, lehen jende heldua gehixeago ateratzen zen. Egunez jendea mugitzen da baina arratsean ez da lehen bezala, dantzaldian lehen heldu gehiago izaten zen, orain gazteagoak egoten dira. Ea aurtengoan gehixeago animatzen diren!”.



Iñaki Telletxea zinegotzia.

abuztuak 14 LARUNBATA

18:00 Herri Kirolak. **20:00 Altxaferoa.** **Ondoren** trikitilariak eta buruhaundiak herrian barna. **21:00 Zopak** Herriko Ostatuan. **23:30 Kontzertua.** **Gauetz** dantzaldia **Dantzadi** taldearekin.

abuztuak 15 IGANDEA (Amabirjin eguna)

10:00 Argi soinuak. **11:30** Meza Nagusia. **Ondoren** luntxa Herriko Ostatuan. **18:00** Pilota partidak lehendabizi herriko pilotari gazteak eta ondoren afizionatuak. **20:00** III. Txapel tiraketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia **Salaberrirekin**.



abuztuak 16 ASTELEHENA (Gazte Eguna)

10:00 Argi soinuak. **13:00** Aizkora apustua **Donato Larretxea-Mikel Mindegia/Floren Nazabal-Angel Arrospide.** **14:00** Gazte bazkaria Herriko Ostatuan. **17:30** Gazte jokoak. **21:00** Kontzertua **Mugalariak** taldearekin. **22:00** Herri afaria **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia **Salaberrirekin**.



abuztuak 17 ASTEARTEA

10:00 Argi soinuak. **11:00** Plater tiroketa. **Goiz eta arratsaldez** haurrendako Jolas Parkea (kars pista eta puzgarriak). **17:30** Mus txapelketa. **19:00** Txokolatada. **19:30** Patata tortilla lehiaketa. **22:00** Kantu zahar afaria herriko pilotalekuan. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia **Bixente** akordeoi-lariarekin.



abuztuak 18 ASTEAZKENA

10:00 Argi soinuak. **14:00** Herri bazkaria. Bertsolariak: **Anjel Mari Peñagarikano** eta **Sustrai Colina.** **Bazkalondoren** giroa **Bixente** akordeoilariak alaituko du. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia **Jalisko Band** taldearekin.




TXARUTA, S.L.
Iturgintza · Berokuntza · Gasa
ongi pasa bestaki!
948 45 17 28 · 659 77 00 15
GAZTELU


Ongi pasa bestaki!
Seriotasuna, ekonomia eta azkartasuna
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
• EGUR LANAK
• ATEAK, ZOLAK
• ARMAIRU ENPOTRATUAK
• SUKALDEAK
• NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK
DONAMARIA - Tel. 948 45 15 53 - M. 657 79 96 88

SASOI
eraikuntzak s.l.

**ONGI PASA
HERRIKO BESTAK!**

Leku-eder, 5
31791 SUNBILLA
(NAFARROA)
Tel.: 948 451 596
Fax: 948 456 168
info@sasoi.es



toklon
laurin musikakolatu
Tfnoa: 678 947 804 • ETXALAR
jolas musikakak eta informazioa
gure web orrian: www.toklon.com

ARROSAMENA zurgindegia
Zurgin lanak
BESTA ONAK PASA (IZAZUE)
948 63 51 44 • ETXALAR



M^a Luisa
629 438 705
TAXIA



IRIBARREN
zurgindegia
Fabrikazio propioa
LEIHOAK "CE" zertifikazioarekin
kontraleihoa, tarimak, ateak...
Zurgin lanak orokorrean
ONGI PASA BESTAK!!!
Tfnoa: 948 635 071 • ETXALAR



harategia **Esarte**
ELIZONDO 948 550 125



ETXALAR

abuztuaren 14tik 18ra

Patxiku IRISARRI | Alkatea

“Gazteek azken hiru urtetan jartzen duten txoznak plazako giroa berpizten lagundu du”

Andre Mari bestetako antolaketa lanetan urtarrean hasten dira Etxalarren. **Patxiku Irisarri** alkatea aipatu digunez, “bilera bat egiten da herriko eragileekin, ideiak eta proposamenak botatzeko. Udal kultur zinegotzia, Altxata elkarte, Guraso Elkar-
tea, gazteak... elkartzen dira. Musika taldeekin ere lehenbiziko kontaktua orduan egiten dugu, abuztuaren 15ean alde guzietan bestak direlako eta abudo mugitu behar delako”. Programa Udalak egiten du berez, baina gauza puntualak talde horiek egiten dituzte. Herri afaria erraterako, edo Asau Eguna, mus txapelketa gazteek egiten dute, Asau Tiki Guraso Elkar-
teak... Programa bera, musika, kanpoko herri kirolak, udaletxeak kontratatzen ditu. Berrikuntza handirik ez da izanen eta azkeneko urteetako ildotik segituko du egitarauak. “Duela bizpahiru urte maria-
txiak ekartzen hasi ziren eta jendeak hagitx gustuko ditu eta aurrean ere ekarriko dugu Txutxin Ibañez. Bertze aldetik, Asau Egunean arratsaldean ez zen bertzerik izaten, baina azken urteetan haurrentzat zer edo zer jartzen dugu eta horrek ere badu arrakasta”, dio Irisarri.

2006ko Asau Egunean gertatutako “gehiegikeriak” azkeneko urteetan nolabait bideratu direla ere aipatu digu alkatea: “Asau Eguna badakigu zer den, zakarke-
ria eta bakoitzak bere burua libre sentitzea, baina orduan lohiarekin kotxeak mar-
rrakatu ziren eta aldaketa batzuk egin genituen ibilbidean: landatik joaten zen eta buelta karreteratik egiten zen eta orduan aldatu genuen, segurtasunagatik, buelta berriz ere landatik egiten da, arriskuak ekiditeko. Aldaketak beti zailak izaten dira eta lehen urtean batzuk errepidetik bueltatu ziren, baina geroztik nahiko ongi bide-
ratua dago”.

Besten aurrekontua joan den urtean bezalatsu mantendu dute Etxalarren, “30.000 euro izaten dugu eta horretan sartzen da Usategietako Igandea ere. Bestak 27.000 euro inguru horretan ibiliko dira”. Pertsonalki, bezpera da gehien gustatzen zaiona alkateari, “gogoekin hartzen direlako bestak eta herri afarian jende pila elkartzen delako. 800 laguneko herri batean 230 bat elkartzea afarian, horrek erakusten du jendearen parte hartzeko gogo. Bertze egunek ere badute bere xarma” aipatu digu. Gazteek duela hiru urtetik honat paratzen duten txoznak plazako giroa bizitu duela ere uste du alkatea: “Horrek bere ardura ekartzen du, txandak osatu be-
har dira, baina pozik gaude. Lehen musika talde bat ekarri eta ez zen jenderik ibiltzen dantzan, baina orain, txoznaren arrimoan animatzen da jendea. Gazteek ere hor-
tik ateratzen duten dirua erabiltzen dute euren gauzak egiteko, sagardotegira au-
tobusa antolatzeko eta bertze gauzetarako”.



Patxiku Irisarri alkatea.

abuztuak 14 LARUNBATA

19:45 Agerraldi isila Euskal Presoak Euskal Herri-
rat lemapean. **20:00 Altxaferua**, txistulariak,
trikitilariak, **Gauerd**i txaranga, buruhandiak eta
kankailuak. Txanpaina eta goxokiak banatuko di-
ra. **21:30 Herri afaria** frontonean. Txartelak har-
tzeko epea abuztuaren 10ean akautuko da. Epez
kanpo erosten duenak 5 euro gehiago ordaindu
beharko ditu. Afaria txarangak girotuta. **00:30-
04:00** dantzaldia **Modestorekin**. **Atsedena**ldian
eta **akabera**n **Gauerd**i txaranga.



abuztuak 15 IGANDEA (AndreMari Eguna)

10:30 Argi soinuak gaitero, buruhandi eta kan-
kailuekin. **11:30 Meza Nagusia**. **12:30 Herriko
dantzari**en saioa. **Ondoren** Kultur Etxean hame-
ketakoa dantzari eta musikarientzat. **Ondoren**
gaiteroak plazan. **18:30 Euskal Herriko Lasto
Jaurtiketa Txapelketa** eta **aizkolari** erakusketa.
19:30 Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Xabier Sil-
veira eta Julen Zelaieta. **20:30-21:30 / 00:00-
04:00** Dantzaldia **Dantzadi** taldearekin.



abuztuak 16 ASTELEHENA (Haurren Eguna)

11:00 Argi soinuak konpartsa ttikiarekin. **12:00-14:00 / 15:30-17:30** Haurrenda-
ko **joko parkea**. **14:00 Asau ttiki**. **17:00 XVIII. Mus Txapelketa** bi mailatan: gazte-
ak (16 urte arte) eta haundiak (17 urtetik goiti). **19:00 Herriko gazteen herri kirol
desafioa**. Aurten ere herriko bi talde lehiatuko dira. **20:30-22:00 Txutxin Ibañez**
mariatxi taldea. **22:00 Suzko zezena**. **00:00-03:00** Dantzaldia **Gaubela** taldeare-
kin.



abuztuak 17 ASTEARTEA

10:30 Argi soinuak, Zuperri fanfarrea, buruhan-
di eta kankailuekin. **11:30 Etxalarko haurren
XXIV. esku pilota txapelketaren finala**. **12:30 Be-
late Elkarteko** afizionatuen arteko pilota parti-
dak. **18:00 Herriko trikitilarien jaialdia**. **19:30-
21:30 Patxi Perez eta Konpainia** Dantza Piko ani-
mazioarekin. Zahar eta gazte, denak dantzan tre-
bel. **00:00-03:00** Dantzaldia **Dantzadi** taldeare-
kin.



abuztuak 18 ASTEAZKENA (Asau eta Jubilatuen Eguna)

10:30 Argi soinuak txaranga, buruhandi eta kankailuekin. **12:30 Belate elkar-
te**ko afizionatuen arteko pilota partidak. **Ondoren** mus eta pilota txapelketen **sari
banaketa**. **14:00 Jubilatuen bazkaria** Herriko ostatuan. **14:00 Asau**, ermitako ze-
laian. La Basque ostatutik txarangarekin batera denak elkarrekin abituko dira er-
mitarako zelairat. Txartelak hartzeko epea abuztuaren 14an akautuko da. Epez
kanpo erosten duenak 5 euro gehiago ordaindu beharko ditu. **16:30 Haurrendako
jarduerak**. **20:00-22:00 / 00:00-03:00** Dantzaldia **Modestorekin**. **Atsedena**ldian
Gauerdi txaranga.





EZKURRAKO UDALAK
Besta zoriotsuak
opa dizkizue
herriar eta bisitari
guztieri

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa
bestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F: 948 610 956 • 948 610 956

EZKURRA HOSTAL KURAL
JATETXEA • TABERNA
PARRILLA • TERRAZA
OTORDUA

Jose Luis Gernollaga • BARRIANKA

www.hostalezkurra.com • info@hostalezkurra.com

Nagusia, 4 • EZKURRA • 948 615 100



LOHITZYNE
eraikuntzak

etxeak, teilatuak
eraikuntzak orokorrean

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

Tfnoa: 948 615 110
Mug.: 699 461 386
Penta etxea • 31749 EZKURRA



EZKURRA

abuztuaren 14tik 18ra

abuztuak 14 LARUNBATA

21:00 Herri afaria. **Gauetz** Lopategi ahizpak.

abuztuak 15 IGANDEA

10:00 Argi soinuak. 12:00 Meza Nagusia. 13:00 Dantzariak **Kemen Taldea**. 18:00 Pilota partidak gazte ta afizionatuak. **Arratsaldez eta gauetz** Jallisko Band.

abuztuak 16 ASTELEHENA

10:00 Argi soinuak. 11:00 Mus txapelketa. 17:00 Herri kirolak. **Arratsaldez eta gauetz** Gabezin.



abuztuak 17 ASTEARTEA

10:00 Argi soinuak. 11:00 Plater tiroketa. **Goiz eta arratsaldez** umeen parkea. 18:00 Pilota partidak gazte eta afizionatuak. **Arratsaldez eta gauetz** Ibai berriak.



abuztuak 18 ASTEAZKENA

10:00 Argi soinuak. 14:00 Herri bazkaria, Joxe Angel akordeoilariarekin. 18:00 Aizkora apustua. **Arratsaldez eta gauetz** Joxe Angel akordeoilariarekin.





ORNOZ MUGAIRI

abuztuaren 14tik 17ra

abuztuak 14 LARUNBATA (Bezpera eta Haurren Egune)

10:00 Herri krosa. **12:00** suziria eta ezkil jotzea. Ondotik kalejira herriko akordeolari eta trikitilarien eskutik. **12:30** Pilota goxua finalak frontoian. **14:00** haurren bazkarie. **16:00** Mus zimizte txapelketa. **16:30** Haur jokoak: Kars, puzgarriak, segway... **21:00** Baztan Zopak. **01:00** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin. **06:00** xinger jatea.

abuztuak 15 IGANDEA (Amabirjin Egune)

10:00 Argi soinuak. **11:00** Meza Nagusia. Ondotik, herriko haurren dantza emanaldia. **14:00** Luntxa. **17:30** Pala txapelketaren finala. **18:30** Herri Kirolak. Leoncio Goñiri eta Esteban Arrutiri omenaldia. **20:00** Gladdis y los Charrros mariatxiak. **22:00** Kuadrillen afa-rie herriko plazan. **00:30** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin.

abuztuak 16 ASTELEHENA (Gazte Egune)

10:00 Danborrada herriko haurren eskutik. **12:00** txaranga herrian barrena. **14:00** Gazte bazkarie. Ondotik, txarangaekin herriko karriketan barna ibilaldia. **17:00** partxis txapelketa. **20:30** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin. **22:00** etxeko emakume zein gizonek egindako tortillen dastaketa. **23:30** Mozorro lehiaketa. **00:30** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin.

abuztuak 17 ASTEARTEA (Herriko Egune)

10:30 Aurorak. **12:00** bertso poteoa herrian barna. **14:00** bazkari herrikoia. **17:30** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin. **20:30** txorizo eta gasna degustazioa. **21:30** dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin. **23:30** Gaixoa Ni.



Pierresenea
OSTATU - JATETXEA

Barrio de Auzoa
Tfnos: 948 582 043
ORNOZ-MUGAIRI

- Jaki tipikoak
- Etxeko giroa

U **USTARROZ DISTRIBUCIONES**
GUILLERMO USTARROZ ALEGRE

ongi pasa bestak!

Sagualde zlg - ORNOZ - T. 948 59 20 12 M. 609 38 58 04

ERREKA-ALDE
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak

Tfnos: 948 592 070 - ORNOZ-MUGAIRI

ONGI ETORRI
Bokatak • Pintxoak • Plater konbinatuak

ongi pasa bestak!

948 59 20 26
ORNOZ-MUGAIRI

OSKORRI
denda

ONGI PASA BESTAK!!

ORNOZ-MUGAIRI - 948 592 045

ongi pasa bestak!

MUGAIRE
ilargintza • herakuntza • gasa

Tfnos: 948 59 24 14
Faxa: 948 59 24 15
Mug.: 629 407 895
ORNOZ-MUGAIRI

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

ZOANSA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

**MADERAS
SANTESTEBAN**



ZERRATEGIA

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilaturako egiturak
- Osagarriak
- Autokiabe tratamendua
- Montaje obran

ZUBIETA • 948 450 877

ARRATE **ESTETIKA
ZENTROA**

Intzakardi, 7
DONEZTEBE

Telefona: 948 450 286



Ongi gato bestaki!

Masaje pertsonalizatuak • Manikura • Pedikura
Gorputzerako tratamenduak • Depilazioa • Makillajeak
Aurpeginako tratamendu pertsonalizatuak
Produktu-solvento pertsonalizatuak eta aholkularitza



**BORTZIRI
UNSION ANAIK**

Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ZUBIETAKO UDALAK (HERROREN)



Zubietako Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
zubietar eta
bisitari guztiei



ZUBIETA

abuztuaren 14tik 18ra

Patxiku MITXELENA | Alkatea

“Bezperako arbola altxatzeak izugarritzko jendetza ekartzen du herrira”

Zubietako Udala arduratzen da herriko bestak antolatzeaz, baina herritarren laguntza handia izaten dutela aipatu digu **Patxiku Mitxelena** alkatea, “horretan ez dugu problemarik, gazteek laguntzen dute, emakumeek... denak eskua botatzeko prest izaten dira”. Aurrekontuan ez dute aldaketa handirik izanen, “joan den urtean bezalatsu, 10.000 euro ingurukoa izanen da”, adierazi digu, ezta egitarauan ere. “Gauza gehiago egitea gustatuko litzaiguke, baina alde guzietatik estutzen ari dira eta ez da laguntzarik izaten, beraz, lehengoari heldu beharko diogu”. Alde horretatik, aizkora apustu polita plantatu dute Amabirjin Eguneako meza ondorako, herriko **Mikel Mindegia** eta **Jose Antonio Loiarte**, **Patxi Mindegia** eta **Ander Erasun** aurtiztarraren kontra ariko baitira, beteranoak gazteen kontra. “Aizkorak ezin du hutsik egin”.

Aurten halere, egun bat haurrentzat berexi dute. “Bertze urteetan ere egiten genituen umeentzako gauzak, baina aurten espreski beraiei eskainitako eguna izanen dute”, jakinarazi digu Mitxelenak. Dirua izanez gero gauza gehiago ere ekar litezkeela uste du, “hau eta hori erraten dugu, baina diruak manejatzen du dena, gu-tti goiti beheiti zer ekartzen ahal den edo zer egiten ahal den, borondatearekin gauza aunitz egiten ahal dira, baina horretaz aparte, sosa behar da gauzak ekartzeko. Zubietan haur asko ditugu eta dirua izanez gero, horientzako zerbait gehiago ekarriko genuke, nik horrela ikusten dut”.

Azkenean, bestak prestatzea kasik urte osoko lana izaten baita. “Duela hiru-lau hilabete itxi genuen orkestren kontua, baina urtariletik hasi ginen horretan. Bertze gainerakoak pixkan-pixkan lotzen joaten gara” dio. Bestak hasteko, Baztanen bai, baina Malerrekan leku guttitan ikusten den ohitura dute Zubietan, arbola altxatzea. “Ez dakit noizko ohitura den, —dio Mitxelenak— baina nik beti ezagutu dut, hortik atera kontuak. Hemen betidanik egiten da, ez dut ideiarik ere noiz hasi zen”.

Beretza bereizteko ez du halako ekitaldi berexirik Zubietako alkatea, “neretzat denak igualtsuak izaten dira”, baina “jende gehixeago ibiltzen da bezperako arbola goitze horretan, jenderik gehiena ibiltzen den eguna izaten da. Joan den urtean ere izugarritzko jendetza bildu zen eta aurten larunbatearekin denez, bisitari aunitz izanen ditugu”, erran digu Zubietako alkatea.



Patxiku Mitxelena alkatea.



abuztuak 14 LARUNBATA (bezpera)

20:00 Herriko txistulariak. **21:30** Zopa handiak Herriko Ostatuan eta Errandonean. **00:00** **Arbola altzatzea** eta **joaldunen** ibilaldia. **Ondoren** dan-tzaldia **Trikidantz** taldearekin.



abuztuak 15 IGANDEA (Amabir-jin Eguna)

08:00 Diana. **11:00** Meza Nagusia. **Ondoren** txistulariak eta Zubietako joaldunak. **12:00** Aizkora apustua: Mindegia-Loiarte/Patxi Mindegia-Ander Erasun. **Egunean zehar** haurrendako puzgarriak. **17:00** Ibintza taldeko dantzariak. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia **Gabezin** taldearekin.



abuztuak 16 ASTELEHENA

08:00 Diana. **Egunean zehar** haurrendako puzgarriak. **12:00** Herri Kirolak. **16:00** Mus txapelketa. **17:00** Patata tortilla lehiaketa. **Ondoren** Berendua. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia **Dantzadi** taldearekin.



abuztuak 17 ASTEARTEA (Haurren Eguna)

Goizean goiz Diana. **11:00** Marrazki lehiaketa. **12:30** Eriz Magoaren emanaldia. **16:30** Betiko joak eta tailerrak. **17:00** Plater tiroketa herri-tarrentzat. **18:00** Berendua eta txokolatada. **19:00** Batukada kalez kale. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia **Gabezin** taldearekin.

abuztuak 18 ASTEAZKENA

08:00 Diana. **11:00** Haurren pilota partidak. **12:00** Helduen arteko pilota finalak. **14:00** Herri bazkaria. **Ondoren** herriari buelta. **22:00** Xingarra eta xistorra jatea. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia **Dantzadi** taldearekin. **02:30** Arbola botatzea beste bukaera emanez.



MIREN
ileapaindegia
ongi pasa bestak!
Martenea • ZUGARRAMURDI • T. 948 599 079

ALTZATENEA
JATETXEA
Juan Luis Alcaraz
ongi pasa bestak!
Tel. 948 599 187
ZUGARRAMURDI

GOIENETXE
zurgindegia
ongi pasa bestak!
948 599 074 • 687 153 047
ZUGARRAMURDI

Iñaki Alzuyet
margoak
Pintura dekoratiboa eta industrialak • Dekorazioa, koloreak, inbentarioak
Fotografia • Barneak
Lanbide eta formazioak • Pintura
Hasi eta egun amaitzekin garbitzen da
Tel.: 900 862 417 • Iruñe 4000 • Landibar Auzoa • 31711 URGATZUBI
pinturas.alzuyet@yahoo.es

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

MONTXO OSTATUA
Dantxarineaik 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • VRDZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

ANSALAS
OSTATUA
HARATEGIA • JANARIDENDA
BESTA EDERRAK PASA!
948 59 90 82 • ZUGARRAMURDI



ZUGARRAMURDI agorrilaren 14tik 18ra

Martin AGIRRE | Zikiroaren prestatzailea

**“800 lagunendako piperrada,
zikiroa eta salda,
jana pilaka eta beti sobran izaten da”**

Lehenagoko zaharrekin hasi eta 40 bat urte daramazki bestetako zikiroak erretzen **Martin Agirre Etxeberria** zugarramurdiarrak. Egun horretan, 800 bat lagunei eman behar izaten diete jatera eta 14-15 bat lagun biltzen dira, “lehenbizikoan juntatzen gara 07:30etik lekora eta zortziak edo lentxeago, sua prestatzeko eta martxa emateko”, dio. Domingo eta Juan Alti hasi ziren zikiroa erretzen, “haiek finituak dira, gero hauen ondotik baziren bertze batzuk segitu zutenak, eta gero utzi zutenak. Denetarik badira”, adierazi digu zuamurdiarrak. Lehenago jende guttiago biltzen omen zen eta bazkaltiarren kopurua emendatzen gan zenean hasi omen zen Martin laguntzen: “Lehenago ez baitzen haundia izaten, 90 edo 100 bat lagun izaten ziren, 120-130 gehienez ere, eta lagun pare batek edo bizpahiruk egiten zuten sua, eta gero, jendea sartzen hasi zelarik, urrunagoko jendea, kanpoko jendea eta sartzen hasi zelarik, jendea exkak gelditu zen eta gazteak gaten hasi ginen laguntzera...”. Goizean goiz hasi eta 18:30-19:00 aldera finitzen badute ere, egun ederra izaten da beretzat. “Pixka bat puskak bildu eta suak itzaltzen lagundu egin behar izaten da, eta izaten dira andreak ere apuntatzen direnak, eta garbitzeko eta, lana haundia gelditzen da gero ondotik, dena kendu, bildu eta, biharamunek behar da dena garbi utzi”, aipatu digu. Menua berdin-bedin mantentzen da, lehenik piperrada, ondotik zikiroa eta gero haragi salda, denetarik nahi haina: “Nahi duenak zer jan han pilaka izatein da, beti sobrak izaten da” erran digu. Leizeek jende gehiagorendako lekua badute ere, 800 bat lagunetan finkatua dute bazkaltiarren kopurua eta nahi duenak hartu dezake txartela: “Bai, txartelak hartu behar dira, aitzinetik ateratzen dira karrikera saltzeko, abuztuaren 8rako edo, eta soberakin gelditzen badira ostatueta edo gazteek kontzen dituzte saltzeko; 800 bat lagun edo ematen dira, ez da gehiago hartzen, egin izan dugu lehenago, baino orain limite hori jarri dugu, sekulan denbora txarra egiten badu edo, jendea dena behar baita barnean eman. Denbora ederrarekin jendea jartzen ahal da denean, lekua pilaka izaten da, baino sekulan suertatzen bada denbora txarra edo... hor 800 lagunekin nahikoa da. Halere, izaten da nun zer egina, eta emazteki eta andre etortzen dira piperrada prestatzera eta laguntzera...”. Zikiroa prestatzeko ez du aparteko sekreturik, baina trikimailu batzuk bai. “Material ona, haragi ona, zikiroa eta gero suak ere badu bere ixtorioa, egurrak onak baldin badire egiten da aisexeagoa, gero denborak ere manatzen du, egurra zaharra bada zikiroa alde batetik berotzen da, eta bertzetik hozten da, eta hor izaten da... trikimailu batzuk ere izaten dira”, erran digu.



Martin Agirre zikiro erretzailea.

abuztuak 14 LARUNBATA

10:00 Besta hasierako **suziria eta ezkil joaldia**. **Ondoren eskea** herri guzian barna **Jaione eta Xabi** musikariek. **14:00 Bazkaria** Herriko Etxean eskean ibili direnendako. **16:00 Haurren jokoa**. **20:00 Kantaldia**. **22:00 Piperrada** plazan animatzen diren guztientzat. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia **Unsain anaiak** taldearekin.



abuztuak 15 IGANDEA

12:00 Meza Nagusia. **Ondoren** Herriko Etxeak **aperitifa** eskainiko du. **13:00 Berako Gure Txokoa Dantza Taldea** ariko da plazan. **17:30 Pilota partidak**: Binaka, **Antxia-Zabala / Nagore-Garmendiaren aurka**. Lau t'erdian, **Perosanz-Arzelusen kontra**. **Ondoren** Berako **Gure Txokoa Dantza Taldea** ariko da. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia **Trakets** taldearekin.



abuztuak 16 ASTELEHENA

12:00 **Gorriti eta bere animalien ikuskizuna**: basurdeak, zakurrak, pottokak, eta abar... **16:00 Hurrendako ginkana**. **18:00 Euskal Jokoa**: aizkolariak, harri-jasotzaileak, sokatira... **21:00 Andreen afaria** Azketan. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia **Joselu anaiak** taldearekin.

abuztuak 17 ASTEARTEA

10:00 **Plater tiroketa**. 12:00 **Erraldoiak** eta **buruhandiak** karriketan barna. 12:00 **Meza** hirugarren adinekoek antolatuta. 14:00 **Hirugarren adinekoen bazkaria** Azketan. 17:30 **Ahate eta gako jokoa**, Urruñako **Erburu** txarangak animaturik. 20:00 **Euskal dantzak Saltoka** taldearekin. 21:00 **Patata omeleta lehiaketa** plazan. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia **Kiki Bordatxoren** taldearekin.



abuztuak 18 ASTEAZKENA

08:00 **etatik aitzinera**, zikiroa prestatzen hasiko gara leizean. 12:00 **Urruñako Etxart txaranga**, **Baigorriko gaiteroak** eta **Beasaingo Koxkola txaranga** karriketan ibiliko dira giroa berotzen. 14:30 **Zikiro jatea** leizean, txaranga eta gaiteroek animaturik. 19:00 **Larraidantza** gaiteroekin eta **muxikoak** plazan. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia **Gaubela** taldearekin.



KATTALIN OSTATU - JATETXEA
948 599009 - ZUGARRAMURDI

MARIKAN OSTATUA
ONGI PASA BESTAK!
948 599 170 - ZUGARRAMURDI

benta Anlon
0034 96 599 161 - ZUGARRAMURDI

AZKETA
FRONTOLIA
OSTATU - JATETXEA
Frontolia • ZUGARRAMURDI
948 599 022 • 948 599 230

A **KELARRE**
elkartek
*besta zoriontsuak
opa dizkizue
zugarramurdiar
eta
bisitari guztiei*
ONGI PASA



LEKAROI

abuztuaren 20tik 24ra

abuztuak 20 ORTZIRELA (bezpera)

20:00 Besten hasiera. **22:00** Baztan Zopak. **23:00** Kontzertuek. Ondoren gaupasa Trikiots taldea-rekin

abuztuak 21 LAUNBETA (Gazte Egune)

10:00 Argisoinuek. **14:00** Gazten bazkarie. **18:00** Gazten arteko jokuek. **20:00** Dantzaldia Triki-dantzekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldia Trikidantzekin.

abuztuak 22 IGENDIA (Haurren Egune)

10:00 Argisoinuek. **12:00** Haurren arteko jokuek. **14:00** Haurren bazkarie. **16:30** Rokodromoa. **17:00** Mus zimizte. **20:00** Dantzaldie Agerralde-rekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldie Agerralde-rekin

abuztuak 23 ASTELEHENA (Herri bazkarie)

10:00 Argisoinuek. **12:00** Futbol partida: gazte-ak zaharren kontra. **14:00** Herri bazkarie San-txotenakin. **19:00** Asteazkenekoak kantaldia. **20:00** Dantzaldie Modestorekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldia Modestorekin

abuztuak 24 ASTEARTIA (San Bartolome Egune)

10:00 Argisoinuek. **12:00** Meza Nagusie. **13:00** Herriko dantzariak. **18:00** Herri Kirolak. **20:00** Dantzaldie Joxe Angelekin. **22:00** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Dantzaldie Joxe Angelekin. Ondoren Gaixoa ni eta helduen urte arte!





NARBARTE

abuztuaren 20tik 23ra

abuztuak 20 OSTIRALA (Haurren eguna)

09:00 Haur jokoak. **12:00** Suziri eta ezkil jotze-arekin beste hasiera emanen zaie. **13:00** Bazkaria herriko ostatuan. **15:00** Herriko gazteak Oihana Elizalde eta Oihana Mindegia trikitilariekin etxex etxe ibiliko dira. **16:00-19:00** Gaztelu puzgarriak. **18:00** Txokolatada. **21:00** Herriko Ostatuan Zopak zerbitzatuko dira. Gauean dantzaldia Gabezin taldearen eskutik.



abuztuak 21 LARUNBATA (Gazteen eguna)

14:00 Gazte bazkaria eta mozkor poteoa. Arratsaldean dantzaldia Garraxi taldearen eskutik. **21:00** VI. tortilla txapelketa, jarraian afaria denentzat. **00:00** Kontzertua Zopilotes Txirriaos (Inpekables) taldearekin. Ondoren gaupasa Garraxi taldearekin. **06:30** Zardin zar jatea.



abuztuak 22 IGANDEA

11:00 Meza. **17:30** Herri Kirolak desafioa: Viejas glorias VS gazte berriak. Arratsaldean, dantzaldia izanen da Mikel Salaberriren eskutik. Afalondoren mus eta partxis txapelketa.



abuztuak 23 ASTELEHENA (San Feliperen Eguna)

08:00 Aurorak. **10:00** Plater tiroketa. **11:00** Meza Nagusia San Felipe benizioaren ohorean. Ondoren luntxa. **14:00** Zikiri jatea Manolo Arozena, Jon Elizetxe eta Julen Zelaieta bertsolariekin. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Agerralderekin eskutik. Ondoren bestak bukatzeko, Gai-xoa ni. Goizeko ordu txikietan II. Kantzontzillo laisterketa.



HERRIKO OSTATUA

ONGI PASA BESTAK!

San Andres. 1 • NARBARTE • 948 59 21 59



PANPOX
Jesperiandia
ongi pasa bestak!

948 59 21 53 • Gorribi. 3 • NARBARTE

LIZUN
GAZTANDEGIA

ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla • Tel: 948 450 862



ongi pasa
herriko bestak!

TALLERES BERTIZARANA, S.L.

Estruktura Metalikoak
Alendako Mekanismoak
Ateak eta Barandak
Farja Artistikoa

Barbakontan espezialistak

Tel. eta Faxa: 948 59 22 43 • NARBARTE
Mugikorra: 680 456 875



Mailposta Buzoneos
publizitatea • inprenta



ongi pasa
bestak!

¡Behar duzun guztia
preziorik onenean!

bisita txartelak • egutegiak
kartelak • folletoak • fakturak
pegatinak • rekordatorioak
gonbidapenak

Narbarte • 686 74 77 13
www.mailpostabuzoneos.com

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramia +
elizako loreak +
detaileak eginez gero
KOTXEKO LOREAK OPARI

NARBARTE
7 948 59 22 00

Humoristakok detaleak, Humorak elizara eta karguakentzako erramien itxura, Karguak eta karguak landariek, zuzenak, gutunak, gutunak, karguak landariek eta karguak.

ongi pasa bestak!

Ardiarana, s.l.
QUESOS DE OVEJA

KAMIKU

LEGASA - T. 680 53 93 00

AROTXA
RESTAURANTE JOTETAKO

• Edozein ingurumenetarako
leku aproposa
• Atrakzioak pribatuak
• Egutegi kartak
• Baita zehazmen bereziak
inpedibilak

Sta. Catalina, 34 - 31702 LEGASA
T. 948 495 100
www.arotxa.com

ABUZTUAREN 27
ZOPAK

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING RIZTIO

OSTATU
JATETXEA

• parrillak
• barakak
• txakur
• txakur-kanakak
• txakur-kanakak
• txakur-kanakak

31702 SILLABELA
NAFARRA
Tel: 948 450 540
948 450 540
www.campingritzio.com

APARAN, S.A.
BIMBOLALA eta ZURAK

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

- Melamina taulak
- Taula hidrologoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab....



LEGASA

abuztuaren 27tik 30era

Koro IBARRA | Antolaketa taldekoa

“Haurren Eguna egun bakarrera mugatu beharrean, egunero izanen da beraientzat eta gainerako guzientzat zerbait”

Urtetik urtera aldatu egiten dira Legasako bestak antolatzeko arduradunak, eta aurtengoan **Koro Ibarra** eta **Izaskun** eta **Eneko Etxart** dira burubelarri horretan dabilizanak. Beraien burua borondatez auzetuz zuten horretarako, “ongi hartzen dugulako eta ordutegi aldetik ere moldatzen ahalginelako”, dio **Koro Ibarrak**. Boluntariorik ez den urteetan, berriz, zozketa bidez aukeratzen dituzte, normalean hiru. Duela bi hilabete inguru hasi ziren prestaketekin, baina musika taldeak kontratzeko lana Kontzejuarekin elkarlanean egiten dutenez, honek urte hasieran ekin zion egitekoari. Ibarren arabera, “Kontzejuak bizpahiru egunetako musika antolatzen du, eta guk bertze egunetakoa”. Eta bestak ahalik eta osatuenak izan daitezzen, berrikuntza batzuk sartu dituzte egitarauan: hegazti erakustaldia, erraterako. Gisa berean, Ibarren gaineratu digunez, “iaz txaranga etorri zen, baina aurrean fanfarrak ekarriko dugu eta Haurren Eguna egun bakarrera mugatu beharrean, egun guzietan izanen da zerbait”. Puzgarriak, tailerrak guraso eta hiru arduradunen artean prestatuak... Baina ez dira haurrak izanen egunero gozatzeko modua izanen duten bakarrak: “Ez dago haurrentzat, gazteentzat edo ezkonduentzat zehaztutako egunik. Egunero izanen dira ekitaldiak guztientzat”. Berrikuntza horrekin batera, lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zegoen bertze nobedade bat ere sartu nahi dute: artisauek. “Asmo hori dugu, baina oraindik ez da segurua”, erran digu Ibarren.

Egitaraua gustu eta adin guzietako jendearentzat egin behar izaten da, baina Koro ere, bertzeek bezala, egun batzuk bertzeak baino gustukuagoak ditu: “ortzira eta larunbata politak izaten dira —dio—. Lehenbiziko eguna harrokeri eguna izaten da, eta gero hasten gara apaltzen...”. Eta oraindik bestak hasteko 20 bat egun gelditzen badira ere, joateko gonbitea luzatu du: “animatu dadila jendea. Gure aldetik, saiatuko gara ahalik eta besta politenak egiten, umore eta giro ederrean”.



Gazteentzat ez ezik, adin guzietako jendearentzat moduko bestak prestatu dituzte aurrean ere Legasan.

abuztuak 27 ORTZILA (Bezpera)

11:00 Haur jokoak eta tailerrak. 17:00 haur jokoak eta tailerrak. 19:00 Buruhaundiak, erraldoiak eta Mifa fanfarrea. 20:00 Suziria eta tanborrada. 21:30 Zopak. 00:00 kontzertuak: Komando Kastaña, Etnia eta Salaberri.



abuztuak 28 LARUNBATA (San Agustin Eguna)

07:00 Aurora. Ondoren gosaria herriko plazan. 12:00 Meza. Ondoren luntxa Herriko Etxeko atarian. 17:00 Aizkora apustua eta artisauak herriko plazan. 20:00 Dantzaldia Garraxiren eskutik. 22:00 Gazte afaria eta elektrotzaranga. 23:30 Kontzertua Marianitoz blai. Ondoren Garraxi taldearekin dantzaldia.




abuztuak 29 IGANDEA

10:00 Puzgarriak. 11:00 Falkoneria, hegazti erakustaldia. 17:00 Hegazti erakustaldia. 19:00 Gastronomia lehiaketa. 20:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



abuztuak 30 ASTELEHENA

Goizean mus txapelketa. 14:00 Zikiro jatea. Ondotik Arkaitz eta Miriamekin kantu eta dantza. 19:00 Jose DJ-a.





ALVARO LOPEZ
Eskolaia, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593



Gure Haragia
Nuestro Carne

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tlf. 945 825 174
BERA NAHARROA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA



- **Enpresa Agenteak**
Autza, etxebizitza, itxipri eta bizitza zueguriak.
- **1 An zueguriak**
Nominu eta Asaguru Sozialak
- **Abuztuaren 10eko**
Errenta Deklarazioa: BEZA...
- **Immugulazioa**
Baserri, berrita, pinu, etahi... salmenta eta alkatua
- **Seguritatea**
Bilgailuen transferentziak, gidatzeak, karnetaren berritzea eta edozein giurako gestioak

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Fax: 945 580 804
anzabal@antzabal.com

VENTA PEIO



udaberri udako
modan eskolako
eskalatza



Tel. 902 210 800 • www.venta-peio.com



ARRAIOZ

irailaren 3tik 6ra

irailak 3 ORTZIRALA

12:00 altxaferoa eta segiden txistulariek. **12:30** haurrendako tailerrak. **13:30** Haur eta gazte-
txoen bazkarie. **17:00** haurrendako jolasak. **18:00** Txokolate-jatea. **20:00** dantzaldie Joxe Angele-
kin. **21:00** Mutildantzak. **21:30** Baztan Zopak. **01:00** dantzaldie Joxe Angel ekin.



irailak 4 LARUNBATA

10:00 Argi soinuek. **11:30** plater-tiroketa. **14:00** gazteen bazkaria. **16:00** mus txapelketa. **18:30** Herri Kirolak. **20:00** dantzaldie Obaneuke taldea-
rekin. **21:30** gazteen afarie. **23:30** kontzertue Zuti-
tik taldearekin. **Segidan** gaupasa Obaneuke tal-
dearekin. *Gan-Torri autobuse izanen da Baztan-
go herriz herri. Ordutegia begiratu.*



irailak 5 IGANDEA

10:00 Argi soinuek. **18:00** Arraiozko XIV. Grand
Prixe. **20:00** kantaldie Panpi Portugal eta bere
taldearekin.



irailak 6 ASTELEHENA

14:30 herri-bazkarie. **17:30** II. Zartain botatze
txapelketa. **19:00** dantzaldie Joxe Angelekin.
00:00 dantzaldie Joxe Angelekin eta ondotik Gai-
xoak Gu beste akabaila emateko.



ETXEBIZITZAK salgai

DONEZTEBE. Eguzkie-der karrikan -tailer inguru-, 2. eskuko kalefakziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000 Pta. (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala eta berogailua. ☎657 715243.

IRUN. Colon aparkalekutik hurbil etxebizitza salgai. Bikote gazteentzat egokia. 180.000 euro (30 milioi pzt). ☎637 559152.

DONEZTEBE. Rosa Se-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

minarion, 3. solairuan da-
goen pisua salgai. Eskai-
lera batzuen bidez, tras-
telekura komunikatua. 3
logela eta 2 komun. Mo-
bleztatua. ☎679 109423.

ERRATZU. Etxebizitza
salgai edo errentan ema-
teko. ☎944 572184/ 652
779210.

ELIZONDO. Apartamen-
tua salgai 'Etxe berdean'
(Txispasen parean). 2 lo-
gela, 2 bainugela, suka-
ldea eta egongela. Mo-
bleztatua. Trastelekua eta
garaje plaza. Aukera pa-
regabea. ☎948 580656
(arratsalde).

LESAKA. Etxebizitza sal-
gai. Prezio onean. ☎609
477277.

ETXEBIZITZAK errentan eman

IRURITA. Etxea errentan
emateko, 3 logela eta ga-
rajearekin. ☎659 764375.

ETXEBIZITZAK errentan hartu

**BORTZIRIAK-HEN-
DAIA.** Neska batek pisu
ttiki bat edo estudio bat
errentan hartuko luke.
☎616 203516.

**MALERREKA EDO
INGURUAN.** Familia ba-
tek baserria edo etxean
errentan hartuko luke.
☎617 543034.

ETXEBIZITZAK konpartitu

Hiru ikasle leitzar Iruñean
bizitzeko **pisukide bila.**
Pisua Irunlarrea auzoan
eta oso lasaia. Etxea han-
dia, eroso eta argitsua.
Bi komun eta gela propioa
bakoitzak. Hilean 200 eu-
ro. ☎680 879654.

IRUÑEA. Mendebaldea
auzoan pisua osatzeko
lagun bat behar da. Uni-
bertsitate pribatutik hur-
bil dago. ☎650 288515.

GARAJEAK/LOKALAK salgai

BERA. Herri erdian
(Kanttonberri, 10) 78
m²ko bajera komertziala
salgai. ☎627 914271.

LURRAK/ORUBEAK erosi

ARANTZA. Guttienez
5.000 m² dituen lurra ero-
si nahi da. ☎653 122074.

LANA eskaintzak

Esperientziadun pertso-

nak **pladur, margo** edo-
ta **igeltsero** lanak egiten
ditu. Prezio ekonomi-
koan. Oso txukuna lane-
an. ☎608 998990 (Mikel).

Geriatrico auxiliarrak
jende heldua edo ezindua
zainduko luke zainketa
pertsonalean, etxeko lane-
tan, laguntza bizitza sozia-
lean eta ospitalean baita
etxean gauak ere. Espe-
rientzia profesionala kon-
trastatua. ☎609 477277.

Neska euskaldunak ex-
tra bezala bestetan lan egi-
nen luke. Sukaldean eta
zerbitzatzen esperientzia
duna. ☎638 191468.

LANA eskariak

Aisialdirako **monitorea** eta
jatetxe bateko **fregade-
ran** lan egiteko bi lagun
behar dira. ☎654 385363.

MOTORRAK salgai

Rieju RR sport 50 mo-
torra prezio onean sal-
gai. ☎699 534512.

Opel Vectra TD salgai.
Egoera eta prezio one-
an. ☎637 466113.

Seat Marbella salgai.
74.000 kilometro. 500 eu-
ro. ☎680 983577.

Opel Meriva salgai. Bortz
urtekoa. Gasolina. Ego-
era ezin hobean. Garaje-
an egondakoa da eta
errebisio guztiak tailer ofi-
zialean eginak dituena.
☎676 919418.



Mercedes c220cdi, 150
CV sport coupe salgai,
2006koa, 75.000km. Iru-
ñeko Mercedes etxean
erosia eta errebisio guz-
tiak bertan eginak. Egoe-
ra ezin hobean. ☎699
122815 / 600 699266.



Golf TDI salgai, egoera
onean. ☎650 064912.



GANIX
TAILERRA
Ibilgailuen mekanika
eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Berriztatze, 9 - Tel: 948 630 669

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta dieselak)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK oparitu

Hilabete bateko **hiru ka-
takume** oparitzeko.
☎ 618 188300.

BERA. Zakurkumea opa-
ritzeko. ☎679 622348.

DENETARIK salerosketak

1,90 metroko **arkazi pike-
teak** salgai. ☎948 634120.

DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA

DESKONTUAK CLUB AVIA txartelarekin
%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

IRABAZI
25
Scooter

Leizako Enpedea
DONEZTEBE
T 948 451 679
www.doneztebe.com

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



MADDI VILLANUEVA NAVARROK lehenbiziko urtea bete du abuztuaren 3an. Aunitz urtez Alkaigakoen partetik.



IKER ARBURUA LEONIS beratarak urteak bete ditu abuztuaren 2an. Zorionak guapeton!



JOANES eta JON Leitzako bi lehengusuek 4 urte bete dituzte abuztuaren 3 eta 4an. Zorionak eta muxu bana familia guztiaren partetik gure bi gizontxoei.



ORTI AROTZENA PORTUK 6 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Zorionak familia osoaren partetik. Aupa Puyol! Visca Barça!



ORTI AROTZENA PORTU lesakarrak 6 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Zu zara txofer politena pi-pi... Muxu bat Lexuriren partetik.



Lesakako LIBE TAPIA MUTUBERRIA eta UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK abuztuaren 29an eta 1ean urtea beteko dute. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



Lesakako UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK abuztuaren 1ean urtea bete du. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



IRADI ARRETXEIA OTXANDORENA sunbildarrak abuztuaren 21-ean 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia eta berexiki Maialenen partetik.



JUNE APEZTEGIA ETXEBESTE sunbildarrak 10 urte beteko ditu abuztuaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat Mendeberriko familiaren partetik eta Sunbillako IRATIK abuztuaren 18an 13 urte beteko ditu, muxu haundi bat Juneren partetik.



Ituren-Zubietako HAIZEA ARTIEDA PORTUK 8 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Bailarako nesak txo jatorrena eta alaitasuna zara zu. 8 urte bete dituzu, 8 aldiz zortzikoa dantzatu behar duzu. 8 muxu ama, aita Lur eta Mirenen partetik.



MATTIN EUGI MENDIZABAL gure Igantziko deabruak 2 urte bete ditu uztailaren 28an. Muxu haundi bat alta, ama eta Andoniren partetik.



MATTIN EUGI MENDIZABAL igantziko uztailaren 28an urteak bete ditu. Zorionak zure bigarren urtebetetze egunean eta muxu haundi bat Igantziko eta Lesakako atautxi eta amautxi-aren partetik.



MATTIN EUGI MENDIZABAL Igantziko gure printzeak 2 urte bete ditu uztailaren 28an. Milaka muxo eta besarkada haundi bat Juanjo, Odei eta Ibonen partetik.



ENAITZ eta JUNE ERKIZIA LASAGA beratarrek abuztuaren 18an eta 6an 4 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat biei familia guztiaren partetik.




Zubietako AIMAR IRIBARRENEK eta AITATZOK abuztuaren 3an eta uztailaren 12an urteak bete dituzte. Dagoeneko gure gizontxoak 6 urte bete ditu. Zuek egindako berendu goxoaren zain gaude familia guztia. Zorionak!



IRADI ARRETXEIA OTXANDORENA sunbildarrak 6 urte beteko ditu abuztuaren 21ean. Zorionak lagunaren partetik eta prestatu berendu goxoa!



Irungo NAROA PERUREN 9 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat Iturenko amatxi, aita, Irune eta izeba-osabaren partetik.



Irungo NAROA PERUREN 9 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak bederatzi muxurekin, Aizoaingo izeba-osaba eta bereziki Janire eta Irairen partetik.



Aunitz urtez guapetonak! Ailetu da zuen eguna! Hagitz ongi pasa eta ea bien artean berendu-afari goxo batera gonbidatzen gaituzuen. Muxu haundi bat. Kaxkarrak.

ttipi-ttapa
www.ttipi.netaldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara: 948 63 54 58Guk ere
oporrrak

Urtero bezala, abuztuarekin batera, iraila bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Ale honetan, ohi dugunez, bestetako egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen zaretenentzat. Oporretan kanpora joan behar duzuenei, ongi pasa eta ez galdu, irailaren 2an berriro ere hamabosteroko zita izanen baituzue **ttipi-ttapa**rekin.

Ongi pasa eta laister arte!

ttipi-ttapa
www.ttipi.net



*Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak*

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

MerKaopari

www.merkaopari.es

Made in Euskal Herria



Etor zaitez ikustera

Euskal Herrian egindako artikulak berriak

Hauek eta askoz gehiago MerKaopari dendan

